



ARGIA

KLIMA LARRIALDIA

Erregai fosilak “karbono bonba” bihurturik

12-15. orrialdeak

**“Bertso mundua
astintzen duen lurrikara
da txapelketa”**

26 | IDOIA TRENOR ETA
GONTZAL AGOTE



**Euskal Herriko
lehen jardunaldi
lodiak**

32 | FEMINISMOA



LARRUN #277
Erauso (kritikatu)
behar dugu



Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu Bilboko Mbolo Moye Doole elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: KONSTANTINOS TSAKALIDIS /
BLOOMBERG / GETTY IMAGES

Iritziak

- 21 | ANA MENDIA
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | KOLDO ALDALUR
- 23 | EVA PEREZ-PONS
- 24 | HIRUKI LARROSA

Finkoak

- 44 | DENBORAREN MAKINA
- 45 | ARGIA KOMUNITATEA
- 46 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



26 | BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ABIATZEAR

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa antolatzen buru-belarri ari diren Idoia Trenor eta Gontzal Agote elkarriketatu ditu Estitxu Eizagirrek. Eszenatokiko oihalaren atzealdea ezagutu nahi? Txapelketa Nagusien historia jasotzen duen infografia ere landu dugu, eta beste bat, parte hartzen duten bertsolari bakoitzaren palmaresa biltzen duena.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL Aitzina doaz 425 'karbono-bonba', klima kontuan hartu gabe

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | PABLO MAYORAL "Ez genuen uste bost pertsona fusilamendu pelotoiaren aurrera eramango zituztela"

Miel A. Elustondo

36 | FEMINISMOA | "EZIN KABITU" JARDUNALDIAK Aktibismo lodiak mugarrria jarri du Euskal Herrian

Garazi Basterretxea

40 | GIORGIA MELONI PRESIDENTE? Eskuin muturra Italia gobernatzeko zorian

Xuban Zubiria

52 | ARGI-KONTRA | MARIJE LUENGO "Ezagutza garrantzi txikiko faktorea da kontsumo ekologikoan"

Unai Brea

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Maddi Viana, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Peru Iparragirre, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Aldaketa ezin estali

Askok dio glaziarrek Lurraren termometrorik onenak direla. Hurbilenak Pirinioetan ditugu. 2021eko ikerketa batek agerian utzi zuen, 2011 eta 2020 urteen artean, Anetoko glaziarrek –Pirinioetako mendirik garaienean– 20 metroko lodiera galdu zuela, zazpi solairuko eraikinaren pare. Goi-mendiari lotutako beste leku batean, Suitzako hego-mendebaldean, negu lehorraren eta udako bero-boladen ondoren, 2012an 15 metroko lodiera zuen izotz-geruza desagertu egin da. Tsanfleuron eta Scex Rouge glaziarrek banandu egin dira, duela ehunka urtetik ikusten ez zen eremu bat agerian utziz. Irudian: estalkiak jarri dituzte negutik iraun duten izotz-bloke urriak urtu ez daitezen.

 FABRICE COFFRINI / AFP  AXIER LOPEZ



Statkraft multinazionalak bi parke eoliko eraiki nahi ditu Euskal Herrian

URKO APAOLAZA AVILA

Araba-Gipuzkoako mugan eta Urola Erdialdean eraiki nahi ditu parke eolikoak multinazional norvegiarrak. Azpeitiko Udalak herri batzar irekia deituko du eta enpresako ardura-dunak ere izango dira bertan. Bitartean, hainbat herritar antolatzen hasi dira proiektu horiek ez dituztelako begi onez ikusten eta bilera deitu dute Azpeitian.

Hautsak harrotu ditu Statkraft multinazionalak Euskal Herrian bi parke eoliko jarri nahi dituen albisteak. Multinazionalak Eusko Jaurlaritzari aurkeztu dizkio proiektuak: Araba eta Gipuzkoako mugan, Aramaio eta Eskoriatza artean bata, eta Azpeitian bestea.

Azpeitiko Udalak batzar batera deituko ditu herritarrek gaiaren inguruan hitz egiteko eta Nerea Alkorta alkateak (EH Bildu) baieztatu du Statkrafteko arduradunak ere bertan izango direla. Proiektuak baditu elementu "berritzai-leak", Alkortaren arabera: "Sustatzaila Norvegiako enpresa publiko bat dela eta, garrantzitsuena, energiaren sozializazioaz, demokratizazioaz eta lankidetzaz hitz egiten dela", adierazi dio Hamanka Telebistari.

Ildo beretik idatzi du EH Bilduko trantsizio ekologikoko idazkari Mikel Oterok: "Proiektu horiei buruz eztabaidatzea zerkatuko da (beste askori buruz bezala), baina badirudi proposamen berezi baten aurrean gaudela". Gaineratu du multinazionalak "kode etiko sendoa" duela.

Hainbatek EH Bilduren baitan iritzi aldaketa ikusi du adierazpen horiekin. Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiak, baina, esan du aldatu dena Jaurlaritza bera dela, eta Euskaltel enpresa publikoarekin gertaturikoa jarri du horretarako adibide: "Saldu zuenean [Arantxa] Tapiak esan zuen ezin genituela enpresa publikoak eduki, hori komunisten kontua zela. Bada, orain Tapiak dio gustatuko litzaiokeela horrelako konpainia bat izatea", adierazi du Radio Euskadin.

FAGOR, INTERESATURIK

Statkraftek Euskal Herrian eraiki nahi dituen parkeak 58 MW eta 33 MW potentziakoak lirateke eta denera 90 mi-



STATKRAFT

Parkeak 58 MW eta 33 MW potentziakoak lirateke eta denera 90 milioi euroko inbertsioa egin nahi du Statkraftek

lioio euroko inbertsioa egin nahi du horretarako.

Fagor taldeak, bere aldetik, adierazi du "hasierako harremanak" izan dituztela multinazionalarekin eta Statkraften "eredu berriak" eskaintzen dituen aukera aztertzen ari direla.

EOLIKOEN AURKAKO MUGIMENDUA

Azken urteetan, Euskal Herriko eskualde eta lurralde askotan parke eolikoak sortzeko egitasmoak ezagutarazi dira eta proiektu horien kontra dauden herritarrek mugiarazi dira; hainbat plata-forma sortu eta protestak egin dituzte.

Adibidez, Arabako Mendiak Aske kolektiboak deituta, Labrazan eta Azazetan eraiki nahi dituzten zentral eolikoek kontrako martxa egin zuten joan den abuztuan. Zizkurkilen, Andatza mendian 121 metroko altuerako lau haize errota jarri nahi dituztela jakiteak ere alarmak

piztu ditu, inguruko naturgune bakane-takoa baita.

Hala, Azpeitian asko dira Statkraften proiektua mesfidantzaz ikusten dutenak eta batzarra deitu dute, Zentral eolikorik ez! leopean.

STATKRAFT ENPRESA PUBLIKOAREN HOLDINGAK

Norvegiako enpresa publikoak makina bat proiektu jarri ditu abian munduan barrena berriztagarriekin –sektorean nagusi da Europan–, horretarako bere filialak diren sozietate eta holdingak sortuz edo Solarcentury bezalako enpresa handiak erosiz.

Brasilen, esaterako, Hego Amerika-ko konplexu eoliko handiena eraikitzen ari da Bahian, Ventos de Santa Eugenia izenekoa, 91 turbina eta 518,7 MW-koa.

Eta gertuago, Alacanteko Vinalopóko 435 hektarea edo futbol zelai inguruko megaplanta fotovoltaikoa eraikitzea Statkraft Holding España SL-ren esku dago; talde ekologistek hainbat helegite jarri dituzte, ustez energiaren konexio-hurbilekoa izan behar zuena, azkenean 54 kilometroko tentsio altuko linea batekin egin nahi dutelako.

Statkraftek 2021 urtean ia 1.600 milioi eurotik gorako etekin garbiak lortu zituen esku artean dituen azpiegitura eta proiektuen bidez. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

Kosmologiko



UXUE APAOLAZA LARREA

Joan den asteko “puf, ze beroa” horiek existentzialistak ziren, sakonetik epe luzera bidalitako aieneak, irautearen inertzia geurekoari eutsi ezinak sortuak (ez geure iraupen indibiduala, espeziearena baizik). Planetario baten klima hotzagoan, unibertsoaren handitasuna heriotza bezain tabu, bezain aztoragarri zaion berozale honek pentsatu du, agian, aizu, ez dela hainbesterako, ez dela ezer gertatuko Lurreko espezie batzuk, zer batzuk, den-denak desagertuta ere.

Munduko aberatsenak ohartuta daude horretaz, eta independizatu ziren aspaldi, ulertzeko gai ez, eta oztopoak jar ditzakeen oroz. Pandemia garaian ere ikusi genuen gai direla kutsatzaile txikiokin nahastu gabe ederki bizitzeko. Mundu zati garbi eta ederrak erosi dituzte, bakarrik mugitzen dira munduan barrena, mugarik gabeko nazio bat dute, oporleku eksklusibo eta guzti.

Eta gu, bitartean, zaborra banatzen jarri gaituzte, gure hondar alea zein baliagarria den esaten zaigu, gure artean haserretzeko gai gara ez hainbeste kontsumitutako Coca-Colak gure esku-arterako bidean eragindako suntsipenagatik, lata ontzi horira ez botatzeagatik baizik. Lorategia edo baratzetxoak gehiegi ureztatzeagatik. Dirudunen bakea gara.

Aberats horiek ez dira berekoiak, ez noski, kosmologikoak dira. Donostiako planetariorik ospitaletara bidean, “bitu, ze pistinak!” ohartu da umea; bat, bi, hiru... Zer inporta zaizkie horiei Zubietako errekatxo bateko arrainak, kutsatzaile txikion osasuna, Zaldibarko zaborra gizajale bilakatzea... “Joango gara noizbait pistina horietara, ama?”. Entzun behar ez lituzkeen hitzak atera zaizkit ezezkoa ematean, ulertzen ez dituen klase egoismoz betetako azalpenak. Kosmologikoak horiek ere, izan ere, beren jet pribatuetatik guztiok puntu ezabagarri dirudigun arren, denok omen gara izaki bakar, paregabe, errepikaezinak. Eta ezertan lehenengoak ez bagara izan, ez gara izaten hasiko desagertzeko ordenan soilik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Iran

Mahsa Amini 22 urteko emakume kurdua Teheranen atxilotu zuten, hiyab-a behar bezala jantzita ez eramateagatik. Komisaldegira eraman zuten, “berheziketa” saioa jasotzeko. Denbora gutxira ordea ospitalera eraman zuten koma egoeran. Bertan hil zen eta kasuak protesta ugari piztu du.

Lehortea

Lehortearen Mahaia aktibatu dute Nafarroan. 2012an deitu zuten azken aldiz Lehortearen Mahaia. Euririk egiten ez duela-eta, Landa Garapenak martxan jarri du berriz, sektorearekin diagnostiko bateratua egin eta prezipitazio faltaren bilakaera eta ondorioak jarraitzeko.

Alternatibak

Bizimodu alternatibo eta komunitarioak energia kontsumoa murriztu dezakeela ondorioztatu du ikerketa batek. EAEko eta Errekalear auzo askeko energia kontsumoa kalkulatu ditu EHUko ikerlari talde batek, aztarna energetikoan eragiten duten faktoreak ezagutzeko.

Tipula



ULA IRURETAGOIENA

Azken hilabeteetan ohikoak dira autoa, auto elektrikoa, garraio publikoa edo bizikletaren erabileraren inguruko artikulak eta berriak komunikabideetan. Araudi askotan aparkalekueetan autoa kargatzeko elektrizitate unitateak egon behar direla jasotzen da dagoeneko. Bizikletaz eskolara joatea pediatrek gomendatu eta eskola bizikleta-bide sarea osatu behar dela zabaltzen hasi da. Autoen aire kutsadurak eragindako hildako kopurua argitaratzen da. Hainbat lekutan auto kopurua kaleetan txikitzea lortu da garaje pribatua eskatuz autoaren jabe-gotzari. Energia krisian garraio publikorako dirulaguntzak adostu eta iragarri dira ikasturtea hasi baino lehen. Kaleko aparkalekuak lorategi urbano bilakatzen diren egoera gehiago ikusten ari gara. Trafiko eredu berriak ezartzen ari dira zentroak oinezko bihurtzeko.

Zer edo zer ari da mugitzen fokoa garraioan kokatzen ari denean. Ematen du sukaldeko saltsa bat prestatzeko prozesuaren hasieran gaudela, tipula zartagian eta txinpartatxoak entzuten diren uneen. Datorrenaren osagaiak lan mahaian jarriak dira, sukaldatzea falta.

Eszeptikoentzako oharrak. Hiriak eta kaleak autoarentzat prestatu genituen bezala –duela 80 bat urte eskas, eszenatoki urbanoa zeharo aldatuz–, orain kaleak bestelako garraibideetara egokitu ditugu, logistika banaketarako gailu elektrikoak, patineteei, bizikleta eredu desberdinei, autobus lineei leku eginaz. Horretarako, mugitzeko sare alternatiboak eroso eta azkarra izan behar du. Hiri arrakastatsua izango da biztanlegoari autorik gabeko bizitza aukera eskaintzen zaionean eta pertsona aberatsak garraio publikoa erabiltzen dutenean. Autoak askatasuna ematen digula errealitatea –eta leloa– da gaur egun, baina txip aldaketan, autoaren beharrik gabe bizitzea izango da askatzaile. Autoaren burbuilatik ateratzeko mapa interesgarri bat zabaltzen du: espazio behar berriak, bizi antolaketa desberdina eta inguruarekin adiago ego- teko mentalitate prestatuagoa. ●



DANI BLANCO

Kontra eta alde

XABIER LETONA BITERI

Geratzeko etorri den krisi sistemikoaren aurrean gaude. Zalantza gutxi horretan. Krisi multzoaren arrazoi eta zergatieta sartzeari beste upeleko kontua da. Batzuek diote 2008ko krisitik ez garela inoiz atera. Ortodoxia ekonomikoaren esanetan, 2014an bukatu zen. Hazkunde ekonomikoaren zenbakiak hala diote, baina Espainiako Estatuan 2019an 60.000 etxegabetze izan ziren, eta teitatupe haletako familiek edo herritarrek seguru ez dutela berdin pentsatzen. Ezta azken hamarkadetan prekarizatutako milioika gazte ere, edo hilaren akaberara justu-justu heltzen diren milioika pentsiodun horiek.

2008tik 2012ra 171.000 etxegabetze izan ziren Espainian, Hipotekak Eragindako Plataformaren arabera. Eta azken bi urteetako COVID-19aren datu larriak ere ez zaizkigu berehala ahanztiko, nahiz hotz-hotzean digeritzen ditugun, gero eta samurrago. Balantzaren alde batean horiek guztiak leudeke. Bestean jar genitzake, adibidez, 2008tik 2013ra Hego Euskal Herrian greba orokorrerako izandako zortzi deialdiak. Klase borrokaren kapitala-langilea balantzan, bistan da lehenak aise irabazi zuela mundu osoan. Ondorioz, egoera aurre-iraultzaileak ezagutu dira Europako hainbat lekutan, esate baterako Grezian edo Jaka Horien Frantzia. Edo eskuin muturraren hedatze geldiezina (Polonia, Hungaria, Suedia, Italia, Frantzia, Espainia...).

EBko agintariak, batetik, erantzun zuten gupida bako austeritate eta murrizketa publikoen politika hiltzaileekin, neoliberalismoa European ezagutu gabeko mugetara eramateraino. Bestetik, arazoan oinarrian finantza krisia izanik, hondoratu ziren bankuen erreskatera bideratu ziren sekulako dirutzak, erabateko kolapso ekonomikoa saihestearren. Hala zioten bederen. Baina behin zulo handienak itxita, denak berdintsu jarraitu du, aberatsenak biziki aberasten, eta pobreenak arago txirotzen. Horretan ere zalantza gutxi dago ezker-eskuin.

Orain, ordea, EB bestelako jarrera erakusten ari da, ez dago garbi iraganeko austerizazioa alboratu eta herritarren balizko altxamenduak saihesteko ote den, edo besterik gabe, egungo globalizazio ereduaren amaieragatik, estatuak gertuko gehiago eta hobeto lotzeko. Edozein kasutan, estatuak ekonomian inondik inora esku hartu ezin zuen lekuan, orain koltxoia ateratzen ari da, adibidez energia prezioak kontrolatuta, irabazi energetikoak zergapetuz, eta enpresa energetikoen nazionalizazioarekin (Frantzia, EDF).

Langileak, klase baxuenek, ez dute euren egoera hobetu 2008tik gaurdaino. Iragan hamarkadan argi zegoen noren kontra egin ziren zortzi greba haiek, baina gaur egun ez dago horren argi. Eskubideak eta ongizatea kontra eta alde lotzen dituen zilbor-hestetik datoz, baina egoera honetan ez da samurra bizitzaren alde nola egin asmatzea. ●

140.000 milioi

euro bildu nahi ditu Europar

Batasunak, konpainia
elektrikoen diru sarrerak
mugatu eta energia fosilen
enpresei zergen ezohiko
irabaziak zergapetuz. Irailaren
30ean eztabaidatuko dute
neurriak aurrera atera ala ez.

4.125 milioi

euroko isuna ezarri diote
Googleri, inoiz ezarritako
handiena. Arrazoia, bere
nagusitasuna sendotzeko
Android mugikorren
fabrikatzaileei legez kanpoko
betebeharrak ezarri izana.

219

papergabe atxiki zituzten
preso Hendaiaiko atxikitze
zentroan 2021ean eta bertan
iragandako egonaldia batez
beste 27 egunekoa izan zen.
Atzerritarren kriminalizazioa
salatu dute.

*“Oraindik ez gara iritsi,
baina pandemiaren
amaiera
begi bistan dago”*

TEDROS ADHANOM GHEBREYESUS

Munduko Osasun Erakundearen
zuzendari nagusia.

2022-09-15



**“ZUHAITZEK BIZIRIK
IRAUNGO ZUTELA
SINETSARAZI ZIGUTEN,
ENGAINATU EGIN GAITUZTE”**

BARAKALDOKO HAINBAT BIZILAGUN

600 etxebizitza pribatu egiteko 40 zuhaitz baino gehiago
moztu dituztela eta Udalak iruzur egin diela salatu dute
Llano eta Lutxanako bizilagunek.

2022-09-12

*“Nire giza eskubideak urratzen
ari dira kartzelan eta nire aurka
abiatutako prozesuak ez du
gutxiengo berme judizialik”*

PABLO GONZALEZ

Giza Eskubideen Europako
Auzitegian demanda jarri du
kazetariak. Otsailaren 28tik
behin-behineko atxiloaldia
betetzen ari da Polonian.

2022-09-12



TEKNOLOGIA

Azpiegitura digitalak



DIANA FRANCO

Konputagailuak gauza handiak eta bakanduak ziren, zenbait ikertzailek, garatzailek, ameslarik hauen tamaina txikitu eta denok erabiltzeko modukoak izan zitezkeela erakutsi zuten arte. Orduan, merkaturak ondo ulertzen zutenek aukera ikusi eta banakako konputagailuen berrikuntza etorri zen, eta denok auto bat genuen bezala, konputagailu bana izan genezakeela eta behar genuela sinestea lortu zuten. Eta horrekin batera gauzak egiteko moduak aldatu ziren. Autoekin bezala, konputagailuak bilakatu ziren etxea, enpresa, komunitateak... beste modu batean konektatzeko tresna. Tresna horiek, gaur egun askorentzat mugikorrak, euren lana egiteko azpiegiturak behar zituzten. Zelan joango zen informazioa leku batek bestera? Azpiegiturak harremanak bideratzeko moduak dira, azpiegiturrekin batzuk barne daude eta beste batzuk kanpo. Barne egoteak ez du beti zertan ona izan; kanpo egotea batzuetan alternatiba interesgarria izan daiteke. Errusia, Txina eta Mongolia azpiegitura sortzen ari dira gasa partekatzeko, Europa azpiegitura horretatik aldentuz.

Digitalizazioarekin, mundua harremanetan jartzen dutenak telekomunikazio azpiegiturak dira (kableak, antenak, sateliteak, uhinen kudeaketa...), eta gasaren azpiegiturrek bezala, badute botere harremanetan eragiteko gaitasunik. Azpiegitura digitalak –eta gure datuak– esku pribatuetan izatea arazo bihurtzen ari da herrirentzat. Submarinecablemap.com webgunean, munduko internet kable guztiak ikusi ditzakegu: zuntz optiko egindako itsas azpiko zuntzak eta euren jabeak erakusten dizkigu. Euskal Herrian, zuzenean bi zuntzek konektatzen gaituzte AEBetako datu meategi handietara: Marea zuntza –Microsoft, Meta eta Telxius enpresen jabetzakoa– eta Grace Hopper –Googlerena–.

Datuen ustiapena hain da garrantzitsua ekonomia eta gizarte antolaketan, ezen herriarren datuak atzerriko datu zentro handietara bideratzen dituzten azpiegituren fluxua arautu nahi duten estatuek. Aurkitu diren moduak, ordea, oraindik ez dira nahikoa datuen ustiatzaile eta bizitzaren bideratzaile erraldoien eragin murrizteko. ●

NAZIOARTEA



Esklabotza goraka XXI. mendean

Mundu osoko 50 milioi pertsona baino gehiago esklabotza modernoaren biktima dira, beren borondatearen aurka lan egitera edo beren baimenik gabe ezkontzera behartuta. Horrek esan nahi du planetako 150 pertsonatik bat egoera horretan dagoela. Hala islatzen du pasa den astean Lanaren Nazioarteko Erakundeak eta Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak argitaratutako esklabotza modernoari buruzko txostenak. 27,6 milioi pertsona inguru bizi dira lan-esklabo gisa, eta beste 22 milioi lagun gozoz kontra ezkonarazita.

Esklabotza modernoa sufritzen duten pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora azken bost urteetan: 2016ko datuekin alderatuta, 10 milioi pertsona gehiago. Aldatu ez direnak dira biktima zaurgarrien ezaugarriak: emakumeak eta haurrak.

Txostenaren arabera, egoerak okerrera egin du koronabirusaren pandemiak, gatazka armatuek eta klima-aldaketak eragindako krisien ondorioz. Pobreziak eta behartutako migrazioak gora egin dute, baita indarkeria matxistarekin lotutako salaketek ere. Horiek denek populazioa ahulago bilakatu dute esklabotza modernoaren askotariko aldaeren aurrean.

Txostenak bildu dituen ondorioen alderdirik aipagarrienetako bat da esklabotza modernoa munduko ia herrialde guztietan gertatzen dela, eta desberdintasun etniko, kultural edo erlijioso guztiak zeharkatzen dituela. Ez dago munduan eskualderik behartutako lanetik libre. Behartutako lanen erdia baino gehiago (%52) eta behartutako ezkontza guztien laurdena gertatzen dira Euskal Herriaren moduko errenta ertain-altuko edo altuko herrialdeetan. Behartutako lanen %86 enpresari pribatuek eragindakoa da, gainerako kasuen %14 estatuen erruz gertatzen da.

Behartutako lana ia lan-sektore guztietan dago. Pertsona helduak gehienbat zerbitzuetan, manufaktura-industrian, eraikuntzan, nekazaritzan eta etxeko lanetan esplotatzen dituzte. Pandemia garaiko konfinamendu-politiken ondorioz, herrialdeetara sartzeko legezko bideak itxi izanak handitu egin zuen behartutako lanetan erortzeko arriskua eta migratzaileen kasuan pertsonen trafiko-sareetan harrapatua izatekoa. Izan ere, haien etxea, familia eta lagunak atzean utzi eta bizitza hobearen xerka abiatu diren pertsona migratuena da mundu osoan esklabotza modernoak gehien eragiten duen kolektiboa. ●

DATUTAN

2022ko Donostiako Zinemaldian euskarak izango duen presentzia

573 emanalditik, jatorrizko bertsioa euskaraz **5** emanaldik izango dute, eta elebidun edo hirueledunak direnak 11 izango dira. Euskarazko azpidatziak izango dituzten saioak, 37. Eta euskarara bikoiztuta, haurrentzako 5 saio eskainiko dira. Orotara, emanaldien **%10,1** izango da euskaraz, eleanitza, edo euskarara azpidatzita. Aldiz, emanaldi guztiak gazteleraz edo gaztelerazko azpidatziekin eskainiko dira.

Sail Ofiziala/ 109 emanalditik, **0** euskaraz edo azpidatziekin

New Directors/ 63tik  **12** azpid.

Horizontes Latinos/ 50etik  **2** azpidatziekin

Zabaltegi/ 102tik  **16** azpid.

Perlak/ 82tik  **4** azpidatziekin

Nest/ 18tik  **2** euskaraz

Culinary Zinema/ 14tik  **2** azpidatziekin

Made in Spain/ 31 emanalditik, **0** euskaraz edo azpidatziekin

Zinemira/ 19tik, elebiduna/hirueleduna 8,  **2** euskaraz

Haur Zinema/ 5etik,  **5** euskarara bikoiztuta

Atzera Begirakoa/ 32tik,  **6** euskaraz

Belodromoa/ 6tik,  **1** euskaraz

Klasikoak/ 5etik, **0** euskaraz edo azpidatziekin


Galak eta gainontzeko atalak/ 37tik,  **4** elebidun

ITURRIA: PANTAILAK EUSKARAZ

Herritarren pobretzea

Kontsumorako Prezioen Indizea **%10,5**ekoa izan da abuztuan, Hego Euskal Herrian.

Elikagaien garestitzea uztailetik abuztura, Hego Euskal Herrian:



ITURRIA: ESPAINIAKO ESTADISTIKA INSTITUTUA (INE)

AITZINA DOAZ 425 'KARBONO-BONBA', KLIMAREN BOST INFLEXIO-PUNTU BUELTARIK GABEKO ALDAKETAN SARTUAK DIRELA KONTUAN HARTU GABE

Bi albiste, aurkako zentzura doazenak, zientifikoen ikerketa eta abisuak energia fosilen industriako eragileen belarrietara iristen ez balira bezala. Bueltarik gabeko aldaketan sarturik ditugu klima orekaturik mantentzen diguten bost osagai eta horrek aldaketa drastikoak dakarzki, egonkortzeko etorriko direnak gainera. Nahaspila eztitzeko bide bakarra dugu beroketa efektua dakarten isurketen murrizketa. Baina ez: munduan 425 azpiegitura alimale daude, petrolio, gasa eta ikatza ustiatzeko, horietarik %40 eraikitze lanetan, eta 646.000 milioi tona CO₂ isuriko lituzkete –Parisko Akordioak finkaturiko 1,5 graduko berotzea ez gainditzeko beharko genituzken 31.000 milioi tonak baino anitzez gehiago–.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Energia fosilen industria iruzur egiten dabil, finantza eragile andanarekin batera, zientziak diona ukatuz. Karbono neutralitatera daraman trantsizio energetikoa ikatza, gasa eta petrolioaren garapenarekin bateragarria dela diote; alta, argi da estrakzio proiektu berri oro gelditu eta horietatik ateratzeko bide bat planifikatu beharko genukeela". Reclaim Finance Gobernu Kanpoko Erakundeko zuzendari Lucie Pinsonen hitzak dira. *Energy Policy* aldizkariak plazaraturiko 'Carbon Bombs', *Mapping key fossil fuel projects* ('Karbono bonbak', fosil erregai proiektuen mapa) txostena esku artean egindako adierazpena da. Martxan diren edo eraikitzen dabilzan petrolio, ikatz eta gas erauzketa megaproiektuen –1.000 milioi tona CO₂ baino gehiagoko azpiegiturak– mapa osatu dute eta kezagarria da emaitza: 425 "karbono bonba" daude munduan zehar eta 646.000 milioi tona CO₂ isuriko lituzkete guz-

tien artean. Katastrofe bat, dakigunean Parisko Akordioak finkaturiko 1,5 graduko berotzea ez gainditzeko, gehienik 31.000 milioi tonakoa beharko luketela izan isurketek.

Bakar batzuegatik mundu guztia piktura doala erakusten digu mapa horrek: azpiegituren hiru laurdenak hamar herritan dira –Txina, Errusia, Ameriketako Estatu Batuak, Iran, Saudi Arabia, Australia, India, Qatar, Kanada eta Irak–.

Azpiegitura horien ixtea ezinbestekoa dugu, eta eraikitzen dabilzanen obrak gelditzea da bai ala bai lortu beharrekoa: 425 horietatik %40 ez dira oraindik martxan. Inbertsio horien gelditzea gomendioa luzatu zuen Nazioarteko Energia Agentziak iaz, beti ere, 2015eko Parisko akordioei segi, beroketa 1,5 gradutara mugatzeko asmoz: petrolio eta gas erreserben %60 eta ikatzaren %90 lur pean utzi beharko lirakeke. Horrela, 2050 bitartean, gas eta petrolio ekoizpena urtero %3 gutxituko litzateke eta

ikatzarena %7. Baina ez, berdez pintatu eta norabide berean segitzen dabilza agintari eta energiaren industriako multinazionalak, ekoizpena %2 emendatuz urtero. Horren frogar, TotalEnergies enpresa frantsesak Qatarren abian duen North Field gas estrakzio proiektua edo orain arteko bonbarik handiena den AE-Betako Permien Delaware petrolio eta gas ustiaketa.

Alta, *Science* aldizkariak iraila hastan honetan plazaratu *Exceeding 1.5°C global warming could trigger multiple climate tipping points* ("Berotze globala 1,5 °C-z gora izateak klimaren inflexio-puntu ugari eragin ditzake") ikerketak alarma gorria piztu digu, beste behin ere: atzerabueltarik gabeko hamasei inflexio-puntuetatik bost gertatzen ari dira. 200 ikerketa zientifiko hartu eta hortik ateratako abisua da azken hori.

Larritasuna ilustratzeko irudi argigarria erabili ohi dute zientzialariek: "Lotan dagoen erraldoiaren esnatzea". Dau-

"KARBONO BONBA" HANDIENA AEB-ETAN

Texas eta Mexiko Berria estatuetan zabalduko Permien Delaware gas eta petrolio gunea da munduko azpiegiturarik kutsakorrena. Fracking-ak, hau da, haustura hidraulikoak erabat suntsitu du bertako ingurunea.



JAN BUCHHOLTZ

kagun klima daukagula, planetan bizia eta bioaniztasuna mantentzeko orekan gaude, klima erregulazioa bermatzen duten hainbat osagaiei esker. Baina, kontua da tenperatura hein batera igoz gero, elementu horien egoera alda daitekeela, ingurunean eta kliman nahas-mendu bortitzak eraginez, eta gaurkoaz ezberdin den egoera egonkor berri bat bideratuz.

KLIMAREN BOST INFLEXIO-PUNTU BUELTARIK GABEKO ALDAKETAN

Esnatu dira beraz erraldoi batzuk eta ezingo ditugu berriz lokarrarazi. Zehazkiago, permafrosteko izotz iraunkorren bat-bateko urtzea, Groenlandiako eta Antartikaren mendebaldeko glaziarren urtzea, tropikoetako koral uharrien desagertzea eta ipar Atlantikoko itsas zirkulazioaren korronte garrantzitsu baten kolapsoa ditu *Science* aldizkariako ikerketak zerrendatzen.

Uste baino goizago datoz klima aldaketaren efektuak. Hain zuzen, Klima Aldaketarako Gobernuarteko Adituen Taldeak (IPCC) iaz egindako seigarren ebaluazio txostenak ohartarazten zigun bi graduko berotzearekin arrisku "altua" dagoela inflexio-puntuak aktibatzeke,

Azpiegitura erraldoi horien hiru laurdenak hamar herritan dira —Txina, Errusia, AEB, Iran, Saudi Arabia, Australia, India, Qatar, Kanada eta Irak—

eta 2,5 gradukoarekin "oso altua". Baina, Estokolmeko Unibertsitateko irakasleek gidatutako ikerketak jakinarazi digu litekeena dela inflexio-puntu batzuk lehenago aktibatzea, hots, industria aurreko tenperatura bi gradu berotzera iritsiko ez balitz ere. Gaur egun, 1,1-1,2 gradu berotu da, zientzialariek egindako neurketen arabera eta bueltarik gabeko alda ketak ditugu jadanik parean.

Goazen ikustera fenomeno bakoitzaren atzealdean zer den gordetzen. Has-teko, permafrost deitzen zaio bi urte baino gehiago izozturik egon den lurzoruari —gehienak Artikoan kausitzen ditugu—. Urteetan izoztuta egon dena berotzen ari da, eta, beraz, desizozten. Kontua da karbono dioxidoa eta metanoa pilaturik direla lurzoru horretan eta urtuz gero sekulako ondorioak izanen lituzkeela kliman: datu zehatza ezin jakina bada ere, adituek diote atmosferan dagoen karbono kantitatearen bikoitza badela permafrostaren barnean gorderik.

Groenlandiako eta Antartikaren mendebaldeko glaziarren urtzea ere bueltarik gabeko norantzan kokatzen dute. Horren ondorioetariko bat da itsasoaren heinaren igotzea: gaur egungo kutsadura heina kontuan harturik, gutienez 27 zentimetroz igoko da 2100 urtea bitartean —"hori apalenean. Modu errealista batean erran dezakegu datu hori bikoiztu baino gehiago egingo dela", Groenlandian geologo dabilen Jason Boxen arabera—. Okerrenean, hau da, 2012ko udan gertatu urtzeen heina errepikatzen balitz urtero, 78 zentimetroz igoko litzateke itsasoa. Eta hori Antartikoaren urtzea kontuan hartu gabe.

Fenomenoa 1990eko hamarkadaz geroztik sentitzen da, eta azken hamarkadan 3.500.000 milioi tona dira urtu. Baina, azeleratuz eta larrituz doa bila-kaera. Aurtengo uda bezalakoek ondorio latzak dituzte: orain arteko urtzeen herena bi udaz gertaturikoa da -2012 eta 2019 urteetan-. Orain arte, Antartikoak beroari hobeki erresistitzen baldin bazion, badirudi gogorki joa dela azken urteetan. Izotz antartikoaren urtzearekin itsaso ilun batek ordezkatzan du bankisaren zuria, bero gehiago xurgatuz eta hortik tenperaturak oraindik gehiago emendatuz.

Labradorgo korrontearen kolapsoa da bueltarik gabeko beste aldaketa.

Groenlandiako eta Antartikaren mendebaldeko glazierren urtzea bueltarik gabeko norantzan kokatu dute ikerketaren oinarrian dauden adituek

Ozeano Artikotik dator eta hegoruntz doa, Labradorgo, Ternuako eta Eskozia Berriko kostaldeak zeharkatuz, eta planetako uren tenperaturaren efektu jarraitu bat ondorioztatuz. Korronte guztien gisara eragin handia du klimaren gainean, eta inflexio-puntu batek beste batean eragiten duenez, Gulf Stream korrontean ere aldaketak ondorioztatuko ditu, horren ibilbidea aldatuz eta aldaketa klimatikoak ondorioztatuz -besteak beste, Europa mendebaldean eta AEBetako ekialdean hozte orokortu bat, horrek gure jendartearen eta bioaniztasunean dakartzkien ondorio guztiekin-. Tropikoetako koral uharrien desagertzea da bosgarren inflexio-pun-

Klimaren inflexio puntuak





PERMAFROST-AK ERE URTUZ

Permafrostaren urtea ere sailkatu dute bueltarik gabeko aldaketen zerrendan. Bere baitan gordetik dituen karbono dioxido eta metanoaren askatzeak areagotu egingen du tenperaturen igoera.

tua: koralek kolorea galtzen dute itsasoaren tenperatura igo egiten delako. Hala gertatzen zaie berotzearen eraginez zooxanthellae izeneko itsas belarra kanporatzen dutenean. Itsas belar txiki horiek oxigenoa eta, bide batez, kolorea ematen diete koralei. Horiek gabe, ahulduz biziraun dezake koralak, baina gehienetan hil egiten da. Itsaspeko biziarentzat ezinbestekoa dira -ozeanoen %0,2 bakarrik estali arren, bertako bioaniztasunaren %30 bermatzen dute-; eta kosta eta ozeanoaren artean kokaturik, uraren mugimenduan eragina dute, kostaren higadura eztituz eta

bestelako fenomeno meteorogikoen ondorioak ere ahulduz.

Azken azterketen arabera, erraldoi baten esnatzeak beste erraldoi batzuk ere esnatu ditzake, domino-efektu bat sortuz. Planeta berotzen den gradu hamarren bakoitzak atzera bueltarik gabeko beste puntu bat pitzarazteko arriskua dakar. Txostenean irakurri daitenke inflexio-puntu gehiago egon daitetzkeela gainditzeko zorian: Amazoniaren degradazioa, ekialdeko Antartikako glaziarren azpiko arroen kolapsoa edo Hego Amerikako mendiko glaziarren desagertzea.

Baina badirudi horrek ez diela zailantza edota erruduntasun sentipen mikorik sortzen 425 "karbono bonben" bultzatzaileei. Ezin sinetsia. Shell, Gazprom, ExxonMobil, BP, PetroChina, Petrobras, ConocoPhillips eta Chevron izenez ezagunak ditugun erregaien industriako multinazionalak 100 milioi dolar dituzte egunero inbertitzen eta horrela segitu nahi dute 2030 arte, *Futura-sciences*-ek plazaraturiko *Les scientifiques s'inquiètent de ces 425 bombes à carbone* ("425 karbono bonbez kezaturik daude zientifikoak") irakurri dezakegunari segi. Sinetsgaitza, zinez. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Pablo Mayoral

1975, IRAILAK 27



EZ GENUEN USTE BOST PERTSONA FUSILAMENDU PELOTOIAREN AURRERA ERAMANGO ZITUZTELA



Frankismo garaiko azken fusilatuak izan ziren: Txiki, Otaegi, Sánchez Bravo, García Sanz eta Humberto Baena. Hauen kide zen Pablo Mayoral, FRAPekea, Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Patriota. Heriotza zigorra ezarri zioten Mayorali, nahiz konmutatu eta 30 urteko espetxea ezarri. Fusilatutako burkideen oroitzua bizia darama betiko.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Zer duzu irailaren 27a?

Hiru alderdikide hil zizkidaten eguna. Euskadiko beste bi kide ere hil zituzten egun hartan. Francoren kontra borrokan ari ginen, diktaduraren aurka. Irailaren 27a egun gozakaitza da, oroitzapen onik ez du nigan: atxilotu egin gintuzten, isolaturik eduki gintuzten DGSn [Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusia, Madrilén], hogeitaka egun egin genituen han beheko zeldetan, handik hamar egunera epaitu gintuzten... Dena oso bizkor igaro zen. Irailaren 27ro ekitaldia egiten dugu Madrilén, gainerako lekuetan egiten denez, era batera edo bestera borrokatu zirenak omentzen ditugu, eta, denak har, 20 egunean atxilotu, isolatu, torturatu, gerra kontseilua egin eta fusilatu zituztenak.

Zer zen diktadura hura?

Batzuek esaten dute Francoren diktadura bigunagoa zela azken aldera, baina justu kontrakoa da: azken aldera ere gogorra eta ankerra izan zen diktadura. Guztiak har, batzuek esaten dute diktadurak ezker muturraren kontra jotzen zuela, baina ez jauna!, diktadurak guztion kontra jotzen zuen, dena galarazten zuen, manifestatzea, biltzea, espresatzea... Dena galarazten zuen, eta galarazten zion gizarte osoari! Eta debeku hori ehunka guardia zibilek, ehunka poliziak eta era guztietako estamentuetako kideek –gauzainek eta hamaika txibatok–, zaintzen zuten. Indar errepresibo horiek mugitzen zen guztiaren kontra egiten zuten tiro –ez

airera, baina jotzera–, eta, batik bat, gazteen kontra.

Jotzera egiten zuten tiro. Zuek, haatik, aurre egin zenieten.

Frankismoaren gau beltzean bizitzerik ez zegoen, zer edo zer egin beharra zegoen. Gure bizimodua errebeldia zen, ez zegoen besterik. Edo etxean zeure buruarekin itxita egon eta ezer ez egin, edo diktaduraren kontra saiatu. Unibertsi-tatean ari baldin bazinen, edo lantegian lanean, bat bakarra zen eztabaida: “Zergatik ez dugu askatasunik? Nola hautsi diktadura?”. Hortaz, logikoa zen han edo hemen militatzea. Errebeldia hutsa zen. Adibide bat: Beatlesek emanaldi bat egin zuten Ventaseko [Madril, 1965] zezen



Pablo Mayoral Rueda

MADRIL, 1951



Espainiako Alderdi Komunista (marxista-leninista)-ko eta FRAPeke kide izan zen. 1975eko uztailean atxilotu, eta frankismo garaiko azken gerra kontseiluetan prozesatu zuten. Heriotza zigorra eman zioten José Luis Sánchez Bravo, Ramón García Sanz eta Xose Humberto Baena hormara eraman zituen epaiketa berean, nahiz gero heriotza zigorra kommutatu eta 30 urteko espetxealdia eman. Bi urte eta erdi kartzelan igaro eta libre zen 1977ko amnistia legearekin. Era batera nahiz bestera, militatzen segitu du. Egun, Frankismoko Preso Ohien Komunan eta Argentinako Kereilaren Sostenguko Estatuko Koordinadoran ari da, etsi gabe.

plazan, eta Polizia jendeari oldartu zitzaion, bere uniforme, pistola, borra eta guzti! Maila horretan bizi ginen. Poliziaren agindua zen kosta lain kosta jendea gogor erreprimitzea, diktaduraren kontra altxatzen zirenen kontra armak erabiliz, jakina.

18-19 urte zenituela PCE (marxista-leninista)-n militatzen hasi zinen. Zergatik alderdi horrexen aldeko hautua?

Giroak berak bultzatzen zintuen hara edo hona. Urtea egin nuen unibertsitatean Ingeniaritza teknikoa ikasten, eta zenbait lagun egin nituen, PCE-koak [Espainiako Alderdi Komunista]. Gero, ikasketak utzi behar izan nituen, eta lanean hasi, han eta hemen eta, denbora guztiz gehiena, NCR multinazional amerikarrean. Garaian, zenbait jende ezagutu nuen, OSOkoak [Langileen Oposizio Sindikala] eta PCE (m-l)-koak –hortik etorri baitzen gero FRAP–, eta hautu huraxe egin nuen, beste gazte askok bezala. Militantzia handia zegoen, lagunartean 20-30 militante izango ginen, eta berdin ondoko auzoan; aktibista eta agitatzaile ginen, panfletoak banatzen genituen, pintadak egiten, edo komandoa osatzen manifestazio bat egiteko.

Usteko nuen jende hauta zinetela, gutxi.

Ez. Gogoan dut FRA-Pen batzordeak osatzen ari ginela, eta egunero taldetxo bat sortzen zela bateko eta besteko auzoetan. Ez ginen gehiengoa, jakina, baina asko. Bestalde, ez zegoen militanteen erregistroa egiteko modurik, klandestinitate handian ginen, eta, horrekin batera beste gauza bat, errepresioa, latza: Poliziak militanteak kartzelatu arteko onik ez zuen, eta horrek, nahitaez, frankismoaren kontrako militante hasi berri askori atzera eragin zion.

Errepresio horren neurrik ez neukan, oraindik orain irakurri dudak arte. Hamaika hildako izan ziren 60ko hamarraldi hartan Madrilen...

1965ean gure militante bat, Jose Delgado Acero, kartzelan hil zen, tortu-

ren ondorioz, 21 egun zigor-zeldetan egon eta gero. Urte horretan bertan, ia hil zuten Ricardo Gualino, panfletoak botatzen ari zenean Getafen; Poliziak tiro egin eta masailetik sartu zitzaion bala. Enrique Ruano, 1969an hil zuten. 1972an, Cipriano Martos akabatu zuten: Reusen hil zen, guardia zibilen torturen ondorioz, eta ospitale txiki batean zenbait egunez hiltorian egon eta gero. 1975ean, Carlos Urritz Geli eta Jose Gomez Cesar balaz zauritu zituzten, bata Bartzelonan, bestea Madrilen, propaganda-lanean ari zirenean. Urte berean hil zen Eduardo Serra Torrent, Valentzian, torturen ondorioz, eta handik bi urtera Jaime Pazos Recaman Bartzelonan; bi kasutan, gure alderdiko militanteen kontrako sarekada handi batean harrapatu zituzten. Esan dizut, basa izan zen errepresioa. Garai hartan, PCE (m-l)-ko militantez beterik zeuden espainiar estatuko kartzelak. Borrokalari suharrak ginen, eta batean eta bestean genuen jendea.

Zein zenituzten borrokaren helburuak?

Gure alderdiak eta FRAPeke enuntziatu handiak zituzten: errepublika federatiboaren alde ginen, AEBen inperialismoaren kontra, demokrazia eta askatasunen alde, autodeterminazioaren aldarri egiten genuen, unibertsitate librea... baina, horiekin batera, bestelako borrokak ere bagenituen: autobusaren prezio-igoeraren kontra egin genuen behin. Autobus-boikota deitu genuen, eta

gogoan dut egun hartan ez ginela autobusera sartu; gu oinez, autobusaren parean, eta barruan, berriaz, guardia zibilak, fusil eta guzti! Semaforo baten alde ere borrokatzen ginen, auzoak hazten ari baitziren, baina guztiz modu kaotikoan, eta semafororik ere ez baitzuten jartzen ahalak eta leherrak egiten ez bazenituen. Beste behin, laranja-biltegirik ere erre zuten gure militanteek, biltzaileentzako soldata egokiak aldarrikatzeko: gauza guztien eta zernahi gauzaren alde borrokatzen ginen. Hala ere, guztiz gehiena, itomen haren kontra saiatzen ginela esango nuke.

Komisaldegitik ateratzeak sekulako poza eman zidan, hainbestekoa ze abokatuak niri esanagatik heriotza zigorra eskatu zidatela, ez bainintzen aztoratu”



Itomena?

Gau beltz haren kontra. Dena zegoen galarazia, ez zegoen arnasa hartzeko modurik, lehertzeko zorian bizi ginen. Familia handiak ginen etxe guztietan, lau-bost seme alaba toki guztietan, gazterik irten behar izan genuen etxetik ogi bila, ez zegoen familiaren sostengurik, familiak berak nahiko lan zuelako bere burua mantentzen! Biziaren alde borrokatzen ginen, eta, horrenbestez, diktaduraren kontra. Gure borroka gertzeko modu bakarra errepresio latz eta garratz hura zen. Ikusi besterik ez dago Franco hil ondoko garaiko mobilizaziotzar handi haiek, artean garbi ez zegoenean Poliziak ez zintuela tirokatuko. Eta, hain zuzen, horixe gertatu zen...

Zer gertatu zen?

Franco hil eta ondoko urteetan, 1975etik 1981era bitartean, Poliziak eta guardia zibilek 134 lagun hil zituztela, eta faxisten bandek, berriz, beste

horrenbeste. Alegia, 300 pertsona inguru hil ziren eskubide demokratikoen aldeko borrokan!

1973ko Maiatzaren leheneko manifestazioan, polizia bat hil zen. Errepresioa areagotu zen. Handik bi urtera, FRAPeko komando batek Lucio Rodriguez polizia hil zuen. Ondoren, sarekada handia eta ehunka atxilotu. Tartean, zu. Handik egunetara, guardia zibil bat ere hil zuen FRAPek.

Bai... Jende asko ginen borrokan, eta estu hartu genuen erregimena. Eta, horrela, Madrilen, Bartzelonan, Sevillan, Valentzian... zenbait ekintza burutu eta gero, erregimenak -ez Poliziak, ez Guardia Zibilak, erregimenak berak baizik-, maniobra hura abiarazi zuen, azkenean irailaren 27ko fusilamenduak ekarri zituena. ETAren ekintzak, eta beste batzuek egiten zituztenak, guk egin genituenei gehitu, eta erregimenak zigor



ZERBITZU SEKRETUEN PSOE

"Gure alderdiak militante asko zituen. Ez ginen bakarrak. Hor-txe ziren PT, ORT, Liga Comunista... PCEn edo PSOEren itun eta adiskidetzetatik kanpo geunden. PSOEren birmoldaketa diktaduraren zerbitzu sekretuen lana izan zen, diktaduraren tresna bihurtzea. Carrero Blancoren garaiko PSOE zerbitzu sekretuen esku zegoela esaten zen. Felipe González-eta Poliziak eskoltaturik joan ziren Suresnesen (Frantzia) egin zuten biltzarrera. Maniobra orkestratua izan zen".

MARTÍN VILLA

"Eta harrapatu egin behar dugu Martín Villa, eta epailearen aurrera eraman, eta galdetu: 'Zer agindu zenuen 1975eko irailaren 27an, Juan Paredes Manot fusilatzea zihoazenean?'. Zeren Martín Villak aginduak eman zituen, Bartzelonako gobernadore zibila baitzen. Aginduak eman zizkion Poliziari eta guardia zibilaria eta batzuei eta besteei, asasinatze hura baimentzeko. Eta hori konplizitatezko asasinatzea da. Horixe nahi dugu, Martín Villa epailearen aurrera eraman, eta defendi dezala bere burua".

Azken hitza

LEKUKOTASUNAK

"Gerra garaiko lekukotasunak bildu dituzte, senideen eta artxiboetako agirien bidez. Gurea, berriz, lekukotasun zuzena da, bizia. Ni torturatu egin ninduten, masakratu, gerra kontseiluan epaitu, batere bermerik gabe. 30 urteko zigorra ezarri zidaten, diktaduraren kontra egiteagatik! Eta nire lagunak, akabatu egin zituzten! Nahitaezkoa da gure testimonioa besterentzea, eta hargatik bihurtu dugu gure militantzia memoriaren aldera".



NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

eredugarri bat ematea erabaki zuen. Hortik, gero, Luis Eduardo Auteren *Al alba* (Egunsentian) kantuko *“gose atzeratuarekin datoz”*. Ondorioa, lau gerra kontseilu, ozta-ozta egindakoak, hila-betean korrika eta presaka, besterik gabe eta zehaztasunik ere batere gabe: hamahiru heriotza zigor eman zituzten lehenengo, gero hamaika, bost militante fusilatu zituzten azkenean...

Zer oroitza dituzu DGSkoak?

Terrorezko gaztelura sartzea zen hura. Segurtasun-neurriek eta Poliziak berak gorriak eta bi ikusiko zenituela adierazten zizuten. Eta gorriak eta beltzak ikusi genituen, bai, bederatzi egunez. [Polizia] sozialek ez zuten atertzen, inguratu egiten gintuzten, joka etengabe. Oso latza izan zen. Kartzelara sartzea atseden hartzea izan zen. Hori dena DGSn gertatu zen, baina ez dira horretaz oroitu nahi. Askotan igarotzen naiz DGS [Eguzki Atea, Madril] izan zenaren paretik, ikusten ditut zeldetako burdin hesiak, eta ilea lazten zait oraindik. Urte askoan, ezesatekoak gertatu ziren han, baina ez dago oroitzarik: 1808an frantsesen kontra borrokatu zirenak oroitzen dira, COVID-19ak hildakoak, Martxoaren 11ko atentatuetaoak, eta, aldiz, urte askoan eraikin zorigaitzoko hori zer izan zen –nor zegoen han, eta zer bihurrikaria egiten zituzten–, oroitzeko ezer ez dago.

Memoriaz ari zara, nonbait ere.

Memoria historikoa, esaten dute. DGS handixetik igaro ziren frankismoaren kontrako Madrilgo eta estatuko borrokalari asko. Diktaduraren eta torturaren kontrako museo izan beharko luke, gorriak ikusi zituzten borrokalariak –batzuk bertan hil ziren, euskaldunek dakizuenek–, omentzeko tokia. Osasun publikoko afera izan beharko luke DGS era horretako museo bihurtzea, oinarritzat. Zorigaitzez, egitate horiek ezkutatzaren saiaterik dira batzuk, historia desitxuratzeko, basakeria hura itxuragabetzeko.

Atxilotzea, isolamendua, tortura, gerra kontseilua...

Kartzelara sartu nindutenean ikusi nuen lehenbizikoz abokatua. Adiskide baten aurpegia, azkenean, hogeitaka egun eta gero! Horrek sekulako poza eman zidan, hainbestekoa ze abokatuak niri esanagatik heriotza zigorra eskatu zidatela, ez bainintzen aztoratu. Mo-


mentu hartan, adiskide baten aurpegia baizik ez nuen ikusten, nitaz kezkatua zen norbait. Ordurako, Poliziak esana zigun ez ginela erraz libratuko, aurrekoetan ez bezala gertatuko zela, heriotzak izango zirela. Poliziek eta beheko zeldetako funtzionarioek esan ziguten!

Eta lau gerra kontseilu, hamahiru heriotza zigor... Nahiz momentuan bertan heriotza zigor haietako bi konmutatu zituzten. Bat, neurea, 30 urteko kartzela zigorra eman baitzidaten; bestea, 25 urteko zigorra jasotako kidearena. Orduantxe jabetu ginen poliziek itaunketetan esandakoa, edo funtzionarioetako batzuek –beheko zeldetan sartu gintuztenean–, esandakoa, eta, are, sumarioen instrukzioek aditzera ematen zutena, betetzeko asmotan zirela. Hamaika heriotza zigor emanik ere, artean isolaturik eduki zituzten gure kideak, ez zieten uzten bata bestearekin hitz egiten, eta gu haiekin komunikatzen saiatu ginenean, Poliziak eta funtzionarioek galarazi egin ziguten, ez zietela patiora ere irteten utziko mehatxu egin ziguten. Itxura txarra hartu genion. Ez genuen uste dena hain azkar egingo zutela, ezta Bartzelonan eta Burgosen ere gerra kontseiluak egingo zituztela ere, eta are gutxiago hain baldarrak eta basak izango zirela, bost pertsona eraman baitzituzten fusilamendu pelotoiaren aurrera. Ez genuen halakorik usteko.

Nola jakin zenuen kideak fusilatu zizkizuetela?

Arratsaldeko zortziak, bederatziak aldera zeldara sartzen gintuzten. Artean ministro kontseilua ez zela amaitu uste dut [Irailak 26]. Ez genuen irratirik ez besterik, eta ez genuen hura azkeneko gaua izango zen kontzientziarik. Hurrengo goizean patiora irten ginenean, orduantxe benetako zauskada: heriotza zigorra konmutatutako kideak bai, irteten ziren –Manolo Chivite, Manuel Cañaveras, Vladimiro Fernández Tovar...–, baina “Ostia!”, esan nuen, hiru lagun falta ziren. Izugarria izan zen. Eta isil-tasuna nagusi. Irailaren 27ko goiza zen, eta han ez zen ez Baenarik, ez Ramón García Sanzik, ez Jose Luis Sánchez Bravorik. Orduantxe jabetu nintzen.

47 urtez, irailaren 27ro, Al alba, burkideak gogora ekartzeko garaia... Irailaren 27an ez ezik, askoz gehiagotan ere ekartzen ditut kideak gogora. Egund askotan ikusten ditut, irudikatzen ditut. 47 urtez, irailak beti 27. ●



Hilekoa

Ba al zatoz, izeba? –galdetu zidan bainujantzia soinean eta loredun flota-gailuak besoetan.

- Bai. Egon pixka batean, komunetik pasa behar dut eta –erantzun nion maitekor.

- Lagunduko dizut! –Eskutik helduta abiatu ginen eskaileretan gora.

Soinekoa jaso nuen. Kuloeroak erantzi. Komunontzian eseri. Iloba nire parean zutik. Sokari tira egin eta tanpoia bildu nuen. Zabal-zabal ilobaren begiak: “Zer da hori?”. Komuneko paperaz egin-dako zorrotzkoa ireki eta hilekoa zer den azaltzen hasi nintzaion.

Ederki asko gogoratzen dut nerauk aurreneko aldiz odoldu nuen egun hura. Ez nintzen kuadrillako lehenbizikoa izan, ezta azkenekoa ere. Zorionez arauzkoen zakuan erori nintzen: ez onduegia, ez gordinegia. Lotsa bat gutxiago, beraz. Akordatzan naiz etxean nintzela eta tanta gorria ikusi bezain pronto deitu niola amari. Ustea konfirma zezan nahi nuen: hori ote zen hilekoa? Niretzat espresuki erositako zuen konpresa-poltsatik bat eman zidan.

- Soka aldatzera zoazen hurrengoan abisatuko didazu? Ikusi egin nahi dut –bota zidan ilobak eskuak garbitzen ari nintzela.

- Bai, neska. Abisatuko dizut erantzun nion komunetik irten aurretik.

Polita izan zen: ezjakintasunean itoita amari deitu zion hura bera zen lau urteko ilobari alutik irteten den odola landareak ureztatzeko erabil daitekeela kontatzen ari zitzaiona. Ez dira antzuak

Ederki asko
gogoratzen dut
nerauk aurreneko
aldiz odoldu nuen
egun hura

izan tanpoiak droga bailiran ezkutuka pasatzen genituen institutuko garaitik igaro diren urteak. Gogora datorkit orain lagun batek panazko praka marroiak jantzi zituela lehenbizikoz odoldu zuen ekain bero hartan (deskuiduan zikinduz gero pasako zuen estuasuna baino nahiago izan zuen izerdia). Tabua oinetan, estropezuka ikasi genuen. Artean, *Super Pop* aldizkariak esaten zuenarekin fidatzen ginen, pentsa! Feminismoari zor, askok aldatu dugu hilekoarekin genuen harremana.

- Ama, zuk sokarik erabiltzen duzu? –Gosaltzen topatu zituen gurasoak komunetik bueltan.

- Zer? –erantzun zion amak inolako hitzaurrerik gabe egindako alabaren galderari.

- Tanpoia nola aldatu dudana ikusi du eta hilerokoaz hitz egin dugu. –Koinatuari kontrako eztarritik joan zitzaion kafea, ia.



ANA MENDIA
EMAGINA

- Nagusien kontuak dira –esatea asmatu zuen ezul artean-. Izeba beti kontu horiekin. –Horratx niretzako apuntea.

- Ez arduratu, maitea. Arrazoi du aita-txok, ikasiko dituzu horrelakoak handitzen zarenean –gaineratu zion amak.

Ulertu nuen inprobisazio hutsean gurasoek bide bizkorretik jo izana. Hala ere, apur bat atsekabetu nintzen, hilekora egin zuen aurreneko hurreratze kontzientean zigorra jaso baitzuen ilobak: urruntzeko esan zioten. Inpresioa dut iloba ere atsekabetu zela pixka bat.

Hilekora gerturatzen garenean: zigorra. Gure sexuaturako gorputzera gerturatzen garenean: zigorra. Emakume garenean: zigorra. Gu guztiok zeharkatzen gaitu munstroak: iloba, lagunak, ama, koinata, koinatua, ni. Gure haragi eta aluetara heltzen da. Barruak estutzen dizkigu. Minak hartzen du agintea. Eta horrela biziratuen du gure odoletik sortuko den odolean.

Dagoeneko hilabete da oporretan izan ginela. Udarari agur esateko bildu gara gaur elkartearen familia osoa. Gaur ere, orain hilabete egin zuen modu bertsuan, komunera nindoala atzetik etorri zait iloba. Gaur ere tanpoia kendu dut bere aurrean:

- Odola! –esan du.

- Bai. Azaldu nizun oporretako etxean. Ez al zara akordatzen? –erantzun diot erretoriko.

- Ez. –Buelta eman du ilobak eta konketara gerturatu da txiza egin ondoren eskuak garbitzearen garrantziaz hizketan. ●

Itzali argia otoi



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Uda atarian banandu ginen eta hona gara berriro ere. Anartean, itzalez-itzal ibili behar izan dugu, suteen artetik, aspaldian iragartzen eta frogatzen den suntsipen klimakoaren ondorioz, izerditan trenpan, den mendreneko mugimendua egin orduko, lan izpirik hasi gabe ere. Gisa berean, sinestgaitza dirudien prezioen igoeraren ondorioak pairatu ditugu jada: agur arrats sargorritz ondartzat hegian gozatu izozkiari, eta bi aldiz pentsatu olio pinta erosi aitzin.

Eta sartu garenean, uste genuelarik entzutekoak oro erranak izan zirela, berriaz harrapatuak izan gara, poderetsuek mespretxu eta mehatxu langa guziak puskatzeko gaitasun gaitza erakusten dutenaz geroz.

Hasteko, egunak laburtzen hasi aitzin, jada abisatu gaituzte larrazkenean berean biziko dugun krisi energetikoaz. Eta, bide batez, lexiko gerlaria erabiltzeari ekin diote: gerlan gara. Frantses lehendakariak gorriak eta bi ikusiko ditugula iragarri digu: “Bukatu da oparotasunaren aroa eta, are gehiago, gutako zenbaitzuen gaitz, axolagabekeriarena”.

Halaxe zioen; eta ondotik, arrunt tolotuak baigaitzek, haur sortu berriei

bezala esplikatu digute, lehendakariak berak, haren ministroek eta zientzialari handiek, “berogailua apaltzea eta argia itzaltzea gelatik ateratzea”, laburki erraiteko. “Denok arduratsu jokatzeko ez badugu, arrazionamendu eta urritasun derrigortu batera goaz” bota eta bukatu dute erranez “elkarrekin indartsuak gara”. Eta, plost, egiazko soluzioetara ausartu gabe, kataklismoen ardura jende xehearren da orain. Alabaina, prefosta, lokal instituzionalek berotuak, klimatizatuak, gauaz argituak izaten jarraituko dute, lasai.

Gero, behin kaosa iragarririk, elkartasuna eta indarrak eskaturik, eta jetski itzuliño bat eginik, Macron Aljeriara joan zen, hegazkin partikularrean, gas stockak berrosatzeko asmoz, omen, baina hara bezain laster, jiteak gaina hartu zion eta ikasgai ematen hasi zen ingurukoei, eta eskuak hutsik etxeratu. Bistan dena. Anartean, mobilitate arazoekin gaitz, garraioaren pribatizazioak autobus kudeaketa eta erabilera ez baitu erraztu nehon. Beraz denak autoz gaitz, noski. Beti bezala.

Artetik, hegazkina uztea eta trenaz ibiltzea proposatu zitzaionean, Mbappé futbolari marabutatua irri trantzetan

sartu da haren trebatzailarekin batera: komentariarik gabe.

Azkenean, punpuila bonetaren kasakoan, gerezia biskotxaren gainean: “Demisio isila” masiboki eta zitalki praktikatzeko leporatu zaio, zaigu, langilegoari. Bai, demisio isilaren kontzeptua agertu da irrati telebistetan aipagai, tole. Azal dezagun: jende zenbaitzuk demisionatzen dute, garbiki, baina beste zenbaitetan, diotenez, lanpostuan jarraitzen dute, zinezko kemenik gabe. Azken hau jende alfertu eta bere lanaz disgustatu gisa aurkeztua da. Zergatik ote? Ez baitu emailei erantzuten gaueko hamarretan, tenorez joaten baita lantokitik eta lan kontratuak dioenez haragokorik egiteari uko egiten diolako. Etsai berri bat.

Ez al zaizue magikoa iduritzen burgesek duten moldea beti gauzak haien alde itzulikarazteko? “Pobre zikinak zantzu” zeritzon horri Coluche zenak. Itzuli orduko, nola ez, oporrak amets.

Beraz, sartze honetako, ongi ulertu duzue denek? Errepikatuko dugu: dutxa laburrak, lana lana lana, trikota bat gehiago soinean ezarri, patata egosiz ase, elektrika eta ur arrazionamendu txartelen bila joan, patinetak erosi, gaixtoa Errusia da. ●



KOLDO ALDALUR
HIRIGOIEN
KAZETARIA

C-2a

Uste dut Berlingo harresia eraitsi eta Nelson Mandela askatu zuten arteko garaian izan zela. Aspaldi xamarreko kontuak, alegia...

Hainbat euskaltegi eta unibertsitatetan aritzen diren dozena eta erdi bat irakasle bildu dira beraiek jarritako EGA azterketak nola zuzendu behar dituzten eztabaidatzeko.

Idazlanak zuzentzean, bakoitzak zer hartzen duen kontuan da eztabaidaren mamia. Ezin ados jarri. Batzuentzat, beste ahalmen guztien gainetik, ikaslearen komunikatzeko ahalmena da kontuan hartu beharrekoa; beste batzuek zuzentasunari ematen diote garrantzia berezia.

Irakasle lanetan hasi berria izanik, hai-zeak nondik jotzen duen jakitearekin nahikoa lan badut nik.

“Adi eta mutu egotea ez da bide txarra horrelakoetan” pentsatu dut, eta isilik geratu naiz.

Horretan garela, ezustean, irakasleeta-ko batek azken deialdian beraiek jarritako azterketaren bost idazlan ekarri ditu fotokopiatuak. Ordu pare bat dute irakasleek idazlanak aztertu, eta arauturiko langa gainditzeko gauza diren ala ez erabakitze-ko. Aise pasa dira bi orduak.

Aukeraturako bi idazlanek eztabaida gu-txi sortu dute: zalantzarik gabe, balekoak. Hirugarren batek ere eztabaida gutxi: azterketara aurkeztea izan da, itxuraz, egileak euskararekin izan duen harreman serio xamar bakarra. Gainontzeko biek piztu dute zuzentzaileen arteko eztabaida. Irakasle

batzuentzat erabat balekoak dira, beste batzuentzat eskatutako maila gainditzetik oso urrun daude.

“Beraz, azterketa nork zuzentzen duen da hemen kontua” da etorri zaidan estreina-ko burutazioa.

Etixerako bidean naizela, lepagaineko errotan beste galdera bat ere bueltaka hasi zait: han bildu diren aztertzailerak aurkeztu izan balira urte hartako azterketara, denek emango al zuketan azterketa gainditzeko ikasleei eskatzen dieten gutxieneko maila?

Berlingo harresia eraitsi izanak ez dakit bi Alemaniak batu edo gehiago bereizi di-tuen, eta Nelson Mandela hil zen.

C-2 mailako egungo azterketaren idazla-naren ebaluazio-irizpide zerrrenda dut esku artean. Egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna eta zuzentasuna: besteak bes-te, solaskide eta xedearen araberrako lotura, xedearen tonua, lexikoaren modalizazioa, hari logikoa, ideien osotasuna, kohesio me-kanismoen erabilera, ordezkapen lexikalen erabilera, gaiari lotutako lexikoa...

Ez dakit gaur egun C-2 azterketaren zu-zentzailerak bilerarik egiten ote duten zer eta nola ebaluatu behar den deliberatzeko. Seguru denek dutela besteek eskatzen die-ten ditxosozko C-2 titulua, baina gaindituko lukete beste norbaitek zuzendutako azter-keta? Agian bai, ez dakit, baina aritua izatea ez da beti nahikoa izaten aditua izateko.

Lehen eta orain, beti izanda meritu han-dikoa eta esker txarrekoa azterketak zuzen-tzearena. ●

Burujabetza energetikoa I



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Hiru-lau hilabeterik behin ur berorik gabe etxean geratzen gara, ez bada galdera, propano botilak kale egiten digulako.

Askotan hausnartu dut burujabetza energetikoaren inguruan; energia berriz-tagarriak iturri dituzten teknologiak dire-la, ingurunera egokitutakoak, kontsumo etiko bati lotutako dimentsionamendua dutenak, eredu deszentralizatueta oina-rritzen direnak, menpekotasunik sortzen ez dutenak... igogailurik gabeko zazpiga-rren solairu baten baliokidea den etxe ba-tean bizi garela, ura eta etxea berotzeko propano botilak behar ditugula eta kotxe-

rik ez dugula, burujabetza energetikoari oso zalantzarria zaion etiketa berdetik haratago doan ezaugarri bati errepara-tzen diot orain: energia lortzeko eta kon-trolatzeko dugun gaitasunari. Adibidez, instalazio elektriko osoa izango bagenu, argiaz hornitzeaz gain ura eta etxea be-rotzea ahalbidetuko ligukeen, nahiz eta argi-kontraturik ez izan, ikas genezake ar-gia pintxatzen eta horrela gure beharrian energetikoak ase egin. Baina ez, botila ero-si eta etxera ekarri behar digute ezarrita dagoen ordutegi batean guk ezin dugulako lan hori egin, eta askotan ur berorik gabe geratzen gara etxean. ●

(Ez gara) neutralak



HIRUKI LARROSA

Aurreko ikasturtean irakasleekin izandako azken esku-hartzeetako batean, eskolaren izaeraren inguruan aritu ginen solasean. Hezkidetza zeharka lantzearen beharraz aritu ginen eta eskolak haur, nerabe, gazte zein eskolako langile ororentzat espazio segurua izatearen beharraz. Ahoz erraz esaten dugun hau guztia nola gauzatu zitekeen ideiak biltzen aritu ginen.

Eskolak izan behar lukeen eta bete beharko lituzkeen funtzioen inguruan hainbat eta hainbat ideia atera zen. Mugak, nolabait, argi azaleratu ziren: eskolak, pertsonen garapen integrala, parekidetasuna, justizia, ongizatea, komunitatearekiko lotura, elkarzaintza, pentsamendu kritikoa... Finean, bizigarriak diren bizitza osasuntsuak sustatu behar zituen. Pertsonen artean boterekeriarik gabeko harreman osasuntsuak sustatzeko landu beharreko edukia ere zerrendatzen hasi ziren: komunikazio ez bortitza, gizonen pribilegioak eta desboteretzea, sexu-genero aniztasuna, dekolonialitatea edo "kultur aniztasuna", indarkeria matxista, tratu onak, klase zapalkuntza...

Gero eta hitz potologoak agertzen hasi ziren honetan, kezkatuta hitz egin zuen irakasle bat. Irakaslea zen heinean, bere pentsamendu eta ikuspegi politikoaz ikasleak bustitzeak arduratzen zuen. Hau da, ideologia jakin bat trans-

Irakasle askok,
haien jardun
pedagogikoaren
balio etiko oinarritzko
moduan ulertzen
dute neutraltasuna,
haurren garapen
kritikorako zumeak
ezarri bai, baina hau
ekintza ideologiko-
politikotik bananduz

mititzeak kezkatzen zuen irakaslea. Neutraltasunaren gaia ez baita hezkuntza formalean lan egiten dugunok gutxitan topatzen dugun gaia. Irakasle askok, haien jardun pedagogikoaren balio etiko oinarritzko moduan ulertzen dute neutraltasuna, haurren garapen kritikorako zumeak ezarri bai, baina hau ekintza ideologiko-politikotik bananduz.

Eskolak ideologiarik gabeko espazio aseptiko moduan ulertzen dituenik apenas geratzen delaren susmoa dugu, hain zuzen ere. Bestela, nola ulertu administrazioetik

egiten diren hezkuntza politikek haien sorkuntzan parte-hartze sozialetik duten eskasia? Edo, nola ulertu gurasoek haien haurrak sexualitate tailer batera ez joateko adierazpena eztabaida sozial, are, aurkakotasunak aurkakotasun, onargarritzat jotzea? Edo, nola ulertu, hezkidetza ematen dugunon aurkako idazki bat EAE zein Nafarroako ikastetxeetan zabaldu izana parekidetasuna eta tratu onak lantzeko garatzen dugun ibilbidean ematen ditugun edukia faltsuak eta "zientziaren kontrako planteamenduak" direla adieraziz?

Eskolak, espazio politikoak direlako. Alegia, borrokarako espazio sinbolikoak.

Orduan, Soledad Trujillok *Pedagogías queer* (2019) libururako gibel solasean aipaturikoa etorri zitzaigun gogora. Hark, eskolak jendartean ematen diren posizio hegemonikoak erreproduzitzeko duen funtzioaz hitz egiten du, gaineratuz, hegemoniatik sortzen den homogeneizazio, norma (eta beraz, bazter) eta erreferentzialtasun bakaren aurrean, kuir pedagogiak irtenbide izan daitezkeela. Zeren, bai berak eta bai guk argi dugu: jendarteko hegemonia arrazista, klasista eta zisheteropatriarkala eskoletatik kanporatu nahi badugu "beharrezkoa da ordena sinbolikorako ekoizpen baliabideetan" ere borrokatzea. ●

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



GETXO

Irailak 24, larunbata, 17:00
Muxikebarri Zentroa

ARRASATE

Irailak 25, igandea, 17:00
Amaia Udal Antzokia



LEHENENGO FASEA

XENDARINEKO AHIZPAK

URRIAK 8 / UDAZKENEKO UZTA
OHIANARTIA ETXALDEA
IBARLA, BAXE NAFARROA



IZEN-EMATEAK:



BASERRIARI BISITA + HAMAIKETAKOA + KONTZERTUA + BAZKARIA

SARRERA: 30€ // 6-12 URTE : 15€ / 0-6 URTE: DOAN · Izen-enameak: www.ehkolektiboa.eus

Antolatzailea: 

Laguntzaileak:  **iametza**  **ARGIA**

Gontzal Agote eta Idoia Trenor

“Bertsolaritzak Nafarroan izan duen garapenean beste mugarri txiki bat da finala bertan egitea”



Irailaren 24an Getxon abiatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia eta abenduaren 18an Iruñean jokatu da finala, lehen aldiz. 41 bertsolarik zazpi lurraldeetako kanporaketetan kantatuko dute eta egungo txapeldun Maialen Lujanbio Nafarroa Arenan izango dute zain. Aurtengoaren ezaugarriez eta txapelketaren tripez galdetu diegu Bertsozale Elkarteko koordinatzaile Idoia Trenor eta Sustapen lantaldeko Gontzal Agoteri.

Aurtengo txapelketak zein ezaugarri ditu?

GONTZAL AGOTE: Txapelketa eginen da, eta hori bada zer bait. Berez lau urteko zikloan sartuta dago Bertsolari Txapelketa Nagusia eta txapelketen aro garaikidean “normala” izan da hori, baina oraingoa berezia da ez delako ziklo hori bete, pandemiagatik. Oso garai gogor batetik gator, bai bertsogintza, bai kulturgintza eta gizartea ere bai; eta gogorra izan da sortzaileentzat, kulturgileentzat, Bertsozale Elkartearentzat... Baina uste dut gauza positiboak ere utzi dituela egoera honek: egoera oso muturreko bati aurre egiteko gai izan gara elkartasunari esker, gure autoantolakuntzari esker eta irudimenari esker. Eta egoera horri erantzunez kulturaren rolari buruzko eztabaida plazaratu dugu: sortzaileen lan baldintzez hitz egin da aspaldiko partez, eta ozen. Gai horrek orain segida behar du.

IDOIA TRENOR: Bai, testuinguruak asko markatuko duen txapelketa izango da, lau urteko zikloa bost urteko bihurtu baitzaigu. Urtebetez atzeratzeak ekarri du bertsolaritzaren funtzio sozialari gehiago erreparatzea eta denbora gehixeago izan dugu txapelketaren antolakuntzan, barne lanerako.

G. AGOTE: Bertsolaritza oso gertutik jarraitzen ez dutenentzat, Txapelketa lau urtero zerutik erortzen den zer bait da. Aurreko urtean txapelketa ez egitea erabaki zenean, adierazi genuen ez zegoela baldintza egokirik: ez soilik osasun arauen aldetik, baizik, bertso plazarik ez zegoelako! Bertso plazarik gabe ezin dugu deus egin, elkar elikatzen dute plazak eta txapelketak.

I. TRENOR: Plaza hutsik geratu denean, oso esanguratsua izan da.

Plaza hustu ondoren, bertso egarri al dago jendea txapelketa hasterako?

I. TRENOR: Txapelketak beti ekartzen du grina, gogo, apalduta dagoen bertsozalea gehiago aktibatzen da, adi dago... Pandemiaren egon den plazako hutsune horretatik, plaza biziberritzen sumatu dugu, hutsunearen osteko loraldi moduko bat.

G. AGOTE: Berpizte hori gertatzen ari da, bertso saioen udako datuak onak dira. Duela urtebete pentsaezina zen gaur horrelako egoera batean egotea. Gauzak oso azkar gertatu dira, norabide batean zein bestean. Orain, irailean, egoera normalizatu batean gaude. Baina ez dugu ahaztu behar nondik gaitozen. Kultur-



gintzak bakarrik ez, denok pasatu dugu gaizki eta bada gogo berezi bat gauza batzuk berreskuratzeko: elkartzea, ongi pasatzea, partekatzea...

Finala Iruñean da aurtengoan. Zergatik?

I. TRENOR: Txapelketa ibiltaria da eta zikloka funtzionatzen dugu. Pasa ginen Belodromotik, pasa gara BECetik eta ziklo aldaketa etorri da. Ez da erraza tokia bilatzea: hainbeste jende goxo sartuko diren aretoak ez dira asko Euskal Herrian. Sortzaileen aldetik eta antolakuntza aldetik, kultur diziplina honek eskatzen du areto edo bestelako azpiegitura batean egitea, ez futbol zelai batean.

G. AGOTE: Konplexua da, bai, Txapelketa Nagusiko finalak egun duen dimentsioagatik: bai jende kopuru aldetik eta baita ere egun osoko ekitaldia delako. Horri gehitu autobusen joan-etorria, bazkaria, abenduan egiten dela... Hori guztia ahalbide behar du hautatzen den lekuak.

Urte askotan izan naiz Nafarroako Bertsotze Elkartean langile eta hortik begiratuta, ikusi dut Nafarroako bertsogintzan izan den bilakaera. Bertsogintzak eta bertsozaletasunak Nafarroan izan duen garapenean beste mugarri txiki

bat da finala bertan egitea. Horrez gain, duela urte batzuk pentsaezina zen Nafarroan halakorik egitea, besteak beste, bertako erakundeekin ezin zelako harreman normalizaturik eduki; ukazioa zen nagusi. Orain ere harremana ez da ideala, baina gauza batzuk aldatu dira, erraztasun gehiago ditugu eta errekonozimendu handiagoa: duela urte batzuk Nafarroako Gobernuak bertsolaritza bertako kultur ondare inmaterial izendatu zuen. Eta Euskarabidearekin egun dugun harremana pentsaezina zen duela urte batzuk. Kontziente gara bai kultur aldetik baina baita ere sinbolikoki, eta lurraldetasunaren eta euskararen aldetik, zer den finala Nafarroara eramatea. Faktore horiek guztiek ekarri gaituzte Iruñera.

Finala egingo den lurraldeko erakunde publikoek ekonomikoki ere heldu behar diote erronkari?

I. TRENOR: Guztiz deslotuta dagoenik ez nuke esango, baina ez da erabakia hartzeko motiboa. Erabakia, Gontzalek azaldu duen bezala, bertsolaritzaren garapenari eta testuinguruari lotutakoa da. Babesle sorta handia du Elkartek eta horiek gabe oso zaila litzateke txapel-



keta aurrera eramatea. Azken urteetan Elkartek lanketa handia egin du dituen harreman instituzionalekin, Elkartearen proiektua bere osotasunean babestu dezaten, eta ez soilik txapelketa. Txapelketa da gizarteak gehien ikusten duena, baina egunero daude bertso eskolak, Xenpelar Dokumentazio Zentroa... eguneroko lan hori babestea da Elkartek behar duena. Erakundeekin dugun elkarlanari beste esanahi bat ematen hasi ginen eta egun hortik eraikitzen ditugu harremanak. Baina horren barruan badaude txapelketaren babesle zuzenak ere, izan aldundiak eta izan Nafarroako Gobernuak.

G. AGOTE: Aurreko txapelketatik eman genuen aldaketa, babesleak txapelketari ez hainbeste lotzekoa. Nahiz eta badakigun txapelketa oso tentagarria dela, baita marka komertzialentzat ere. Batzuek aurrepigitzen digute txapelketa ez dugula komertzialki behar beste zukutzen. Baina balio batzuen arabera antolatzen dugu.

Finalaren gaira itzulita, Elkartek erabaki zuen finala Iruñean egingo zela eta ondoren jakinarazi zitzaion Nafarroako Gobernuari, antolakuntzarako harremanak bideratzen hasteko. Babesletza ez zen baldintza, txapelketa ez da enkante bat.

Bertso olinpiaden historia

Urtea	Parte-hartzea	Finala non	Finalean aritu ziren bertsolariak	Finalaren profila	Finalista berriak
1935	19 Denak gizonak	Donostia Kursaala	► Iñaki Eizmendi "Basarri" Jose Manuel Lujanbio "Txirrita", Akilino Izagirre "Zepai", Esteban Uriarte "Utarre", Aieteko Etxeberria, Euxebio Eizmendi "Txapel", Fernando Alkain, Jean Pierre Larralde "Panpale", Jose Maria Berra "Tellaetxipi", Juan Jose Sarasola "Lexo", Juan Zabaleta, Matxin Irabola, Ordiziako Mintegi, Nikolas Sorozabal, Juan Mari Salegi "Kortatxo", Patxi Erauskin "Errotaria", Pello Zabaleta, Prudentzio Abarrategi "Besamotza", Joxe Kruz Larrañaga "Nekezabal".	19 gizon Nongoak: GI 15 BI 2 BN 1 LAP 1	
1936	30 Denak gizonak	Donostia Victoria Eugenia	► Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" Manuel Olaizola "Uztapide", Akilino Izagirre "Zepai", Mixel Dargaitz, Juan Felix Iriarte "Berjinanto", Jose Inazio Etxeberria "Merdillegi", Joanes Harriet "Premundo", Juan Jose Lujanbio "Saiburu", Euxebio Eizmendi "Txapel", Jose Mari Mutuberria (ez zen azaldu, gaixo).	10 gizon Nongoak: GI 6 LAP 1 NA 2 BN 1	6 *Aurreko txapeldun 'Basarri'k ez zuen parte hartu.
1960	56 Denak gizonak	Donostia Victoria Eugenia	► Iñaki Eizmendi "Basarri" Manuel Olaizola "Uztapide", Jon Azpillaga, Fernando Aire "Xalbador", Mattin Treku, Jon Narbarte "Xalto", Joxe Joakin Mitxelena, Jon Mugartegi, Juan Perurena.	9 gizon GI 4 BN 1 LAP 1 NA 2 BI 1	8
1962	84 Denak gizonak	Donostia Astoria	► Manuel Olaizola "Uztapide" Iñaki Eizmendi "Basarri", Fernando Aire "Xalbador", Joxe Migel Iztueta "Lazkao Txiki", Joxe Joakin Mitxelena, Migel Arozamena, Mattin Treku, Jon Azpillaga, Jon Lopategi, Migel Zabaleta.	10 gizon GI 5 BN 1 NA 2 LAP 1 BI 1	4
1965	113 Denak gizonak	Donostia Anoeta pilotalekua	► Manuel Olaizola "Uztapide" Joxe Migel Iztueta "Lazkao Txiki", Fernando Aire "Xalbador", Joxe Joakin Mitxelena, Mattin Treku, Jon Lopategi, Jon Mugartegi, Migel Arozamena, Andres Narbarte "Xalto", Txomin Garmendia.	10 gizon GI 4 BN 1 LAP 1 BI 2 NA 2	3
1967	83 Denak gizonak	Donostia Anoeta pilotalekua	► Manuel Olaizola "Uztapide" Fernando Aire "Xalbador" (* txistua jo ziotenekoa), Jon Lopategi, Joxe Migel Iztueta "Lazkao Txiki", Jose Luis Gorrotxategi, Migel Arozamena, Txomin Garmendia, Mattin Treku, Jon Mugartegi, Bautista Madariaga.	10 gizon GI 4 BN 1 BI 2 LAP 1 NA 2	2
1980	16 Denak gizonak	Donostia Karmelo Balda pilotalekua	► Xabier Amuriza Jon Enbeita, Jon Azpillaga, Patxi Etxeberria, Txomin Garmendia, Jose Luis Gorrotxategi, Anjel Larrañaga, Manuel Sein "Xanpun".	8 gizon GI 4 BI 3 LAP 1	6
1982	66 Denak gizonak	Donostia Karmelo Balda	► Xabier Amuriza Jon Enbeita, Jon Azpillaga, Txomin Garmendia, Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso, Jon Lopategi, Anjel Mari Peñagarikano.	8 gizon Nongoak: GI 5 BI 3	4

Urtea	Parte-hartzea	Finala non	Finaleran aritu ziren bertsolariak	Finalaren profila	Finalista berriak
1986	 90 Emakume 1: Kristina Mardaras 89 gizon	Donostia Belodromoa	☛ Sebastian Lizaso Jon Lopategi, Xabier Amuriza, Jon Enbeita, Iñaki Murua, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Anjel Mari Peñagarikano.	8 gizon Nongoak: GI 5 BI 3	3 *Aurreko finalista Jon Azpillagak ez zuen parte hartu.
1989	 38 Denak gizonak	Donostia Belodromoa	☛ Jon Lopategi Sebastian Lizaso, Xabier Perez "Euzkitze", Andoni Egaña, Jon Enbeita, Mikel Mendizabal, Imanol Lazkano, Iñaki Murua.	8 gizon Nongoak: GI 6 BI 2	3
1993	 40 2 emakume: Estitxu Arozena, Amaia Telletxea 38 gizon	Donostia Belodromoa	☛ Andoni Egaña Xabier Perez "Euzkitze", Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Jokin Sorozabal, Jon Enbeita, Anjel Mari Peñagarikano, Aritz Lopategi.	8 gizon Nongoak: GI 5 BI 3	4 *Aurreko finalista Jon Lopategik eta Imanol Lazkanok ez zuten parte hartu.
1997	 42 5 emakume 37 gizon	Donostia Belodromoa	☛ Andoni Egaña Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Jexux Mari Irazu, Mikel Mendizabal, Aritz Lopategi, Jon Maia, Maialen Lujanbio.	Emakume 1 7 gizon Nongoak: GI 6 BI 2	4 *Aurreko finalista Xabier Perez "Euzkitze", Jon Enbeita, eta Anjel Mari Peñagarikanok ez zuten parte hartu.
2001	 37 7 emakume 30 gizon	Donostia Belodromoa	☛ Andoni Egaña Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jexux Mari Irazu.	Emakume 1 7 gizon GI 5 BI 2 LAP 1	3 *Aurreko finalista Sebastian Lizasok ez zuen parte hartu.
2005	 38 10 emakume 28 gizon	Barakaldo BEC	☛ Andoni Egaña Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Jon Maia.	Emakume 1 7 gizon GI 4 BI 2 LAP 2	1
2009	 44 13 emakume 31 gizon	Barakaldo BEC	☛ Maialen Lujanbio Amets Arzallus, Jon Maia, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi.	Emakume 1 7 gizon GI 5 BI 1 LAP 2	1
2013	 43 13 emakume 30 gizon	Barakaldo BEC	☛ Amets Arzallus Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga, Beñat Gaztelumendi, Sustrai Colina.	Emakume 1 7 gizon GI 4 BI 2 LAP 2	2
2017	 43 13 emakume 30 gizon	Barakaldo BEC	☛ Maialen Lujanbio Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Igor Elortza, Aitor Sarriegi, Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre.	Emakume 1 7 gizon GI 5 BI 1 LAP 2	1
2022	 42 15 emakume 27 gizon	Iruñea Nafarroa Arena	☛ ... Maialen Lujanbio, ...	...	*Aurreko finalista Igor Elortzak eta Aitor Sarriegik ez dute parte hartuko.

Nor da nor

- ☛ Euskal Herriko txapela jantzi duen urtea
- 🔪 Zein Txapelketa Nagusitan hartu du parte
- 🏆 Zein urtetan izan da Txapelketa Nagusiko finalista
- 👤 Herrialdeko txapela irabazi duen urtea

Egungo
txapelduna



Maialen Lujanbio Zugasti

Hernani, 1976

☛ 2017, 2009

🔪 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001, 1997

🏆 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001, 1997

👤 GI: 2003

Aurreko finalistak



Aitor Mendiluze Gonzalez

Andoain, 1975

🔪 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001, 1997

🏆 2017, 2013, 2009, 2005, 2001

👤 GI: 1995, 2007



Amets Arzallus Antia

Hendaia, 1983

☛ 2013

🔪 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001

🏆 2017, 2013, 2009, 2005

👤 NA: 2000, 2001, 2002, 2003

👤 Xilaba: 2008, 2010, 2012, 2021



Sustrai Colina Acordarrementeria

Urruña, 1982

🔪 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001

🏆 2017, 2013, 2009, 2005, 2001

👤 Xilaba: 2014, 2016



Beñat Gaztelumendi Arandia

Añorga, 1987

🔪 2022, 2017, 2013, 2009

🏆 2017, 2013

👤 GI: 2015, 2019



Unai Agirre Goia

Hernani, 1975

🔪 2022, 2017, 2013, 2009, 2001, 1997

🏆 2017

Herrialdeetako egungo txapeldunak



Nerealbarzabal Salegi

Markina-Xemein, 1994

🔪 2022, 2017

👤 BI: 2021



Peru Abarrategi Sarrionandia

Aramaio, 1997

🔪 2022

👤 AR: 2022



Saioa Alkaiza Guallar

Iruñea, 1991

🔪 2022

👤 NA: 2021

Txapelketa Nagusietan beterano



Xabier Silveira Etxeberria

Lesaka, 1976

🔪 2022, 2013, 2009, 2005, 2001, 1997

👤 NA: 1997, 2004, 2005, 2006, 2007, 2009, 2013



Onintza Enbeita Maguregi

Muxika, 1979

🔪 2022, 2017, 2013, 2009, 2005

👤 BI: 2018



Julio Soto Ezkurdia

Iruñea, 1987

🔪 2022, 2017, 2013, 2009

👤 NA: 2010, 2011, 2015, 2017, 2019



Miren Amuriza Plaza

Berriz, 1990

🔪 2022, 2017, 2013, 2009



Miren Artetxe Sarasola

Hendaia, 1985

🔪 2022, 2017, 2009, 2005



Iñigo Mantzizidor Larrañaga Mantxi

Zarautz, 1977

🔪 2022, 2013, 2009, 2005

👤 GI taldeka: 1999



Oihana Bartra Arenas

Bilbo, 1984

🔪 2022, 2017, 2013, 2009



Jone Uria Albizuri

Getxo, 1990

🔪 2022, 2017, 2013, 2009



Nerea Elustondo Plazaola

Legazpi, 1981

🔪 2022, 2017, 2013, 2001

Txapelketa Nagusian estreinakoz



Aitor Bizkarra Ruiz
Abadiño, 1996
🔪 2022



Aitor Etxeberriazarraga Gabiola
Gernika-Lumo, 1993
🔪 2022



Amaia Iturriotz Etxaniz
Urretxu, 1993
🔪 2022



Ane Labaka Mayoz
Lasarte-Oria, 1992
🔪 2022



Asier Azpiroz Iztueta
Zubieta, 1991
🔪 2022



Eñaut Martikorena Lizaso
Hernani, 1995
🔪 2022



Gorka Pagonabarra Agorria
Durango, 2000
🔪 2022



Haritz Mujika Lasa
Asteasu, 1995
🔪 2022
🏆 GI taldeka: 2017



Imanol Uria Albizuri
Algorta, 1993
🔪 2022



Joanes Illarregi Marzol
Leitza, 1999
🔪 2022



Maialen Akizu Bidegain
Urretxu, 1996
🔪 2022



Patxi Iriart Hiribarren
Hiriburu, 1988
🔪 2022



Unai Mendizabal Jauregi
Zizurkil, 1992
🔪 2022
🏆 GI taldeka: 2017



Argi
hauekin ere



Manex Agirre Arriolabengoa
Aramaio, 1982
🔪 2022, 2013
🏆 AR: 2011, 2015
🏆 AR taldeka: 2010, 2018, 2020



Agin Laburu
Astigarraga, 1985
🔪 2022, 2017, 2013



Alaia Martin Etxebeste
Oiartzun, 1987
🔪 2022, 2017, 2013



Maddalen Arzallus Antia
Hendaia, 1990
🔪 2022, 2017, 2009



Iñaki Apalategi Astigarraga
Beasain, 1982
🔪 2022, 2017, 2013



Iban Urdangarin Lardizabal
Ataun, 1985
🔪 2022, 2013



Eneko Lazkoz Martinez
Etxarri-Aranatz, 1983
🔪 2022, 2017



Beñat Iguaran Amondarain
Amasa-Villabona, 1988
🔪 2022, 2017



Oihana Iguaran Barandiaran
Amasa-Villabona, 1991
🔪 2022, 2017



Unai Gaztelumendi Arandia
Añorga, 1988
🔪 2022, 2017



Xabat Gallettebeitia Abaroa
Lekeitio, 1986
🔪 2022, 2017

Finala Donostiatik BECera mugitu izanak uxatu zituen hainbat mamu? Garai hartako zalantzak ziren entzule gehienak gipuzkoarrak zirela eta agian ez zirela mugituko, BEC beteko ote zen...

I. TRENOR: Ni ez nengilen Elkartean garai hartan, baina jaso dudanagatik badakit harrabots handia sortu zuela eta erronka handia izan zela. Non eta BECen, garai hartan bertsoarentzat inguru arrotza zen. Gero ikusi da ezetz, finalak lortu duela jendearentzat izatea galdu ezin den ekitaldi bat: jendeak bertan egon nahi du eta bertsozalea prest dago mugitzeko finala den lekura. Iruñera aldatu dugunean ez dut horrelako beldurrik batera sumatu.

G. AGOTE: Kontrakoa, poza sortu du. Bide horrek badu ifrentzua, espektakularizazioa: jende baten buruan, BECen hurrengo pausoa San Mames da. Nahiz eta saiatzen garen gure bidea lantzen eta hortik gehiegi ez ateratzen, txapelketekin askotan sortzen zaizkigu kontraesanak: espektakuluaren gizartean bizi gara eta jendeak nahi du handiago, azkarrago, gehiago... Txapelketak izaera ibiltaria du, baina saiatzen gara deserrotzerik ez gertatzen: txapelketako saioak izango diren herrietan aurrez lanketa egiten da, arrastoa uzten saiatzen gara...

Txapelketak antolaketa gastu handiak ditu. Nola finantzatzen da?

I. TRENOR: Finantza iturri desberdinak ditu: batetik, aipatu ditugun babesleak daude. Beste zati garrantzitsu bat iragarleak dira, aurrez lanketa handia egiten da publizitatea lotzeko. Alor horretan ere, iragarle batzuk txapelketan soilik zentratzen dira, baina beste batzuek Elkartearen ekimen gehiagotan jartzen dute publizitatea. Bertsozale Elkartek 2.500 bazkide inguru ditu eta hauen kuotek ere eusten dute txapelketa, eta noski, sarreraren salmenta da ezinbesteko beste iturria.

Txapelketaren emaitza ekonomikoek zein neurritan eusten diote Bertsozale Elkartearen proiektuari?

I. TRENOR: Txapelketa lau urteko ziklotan egin izan da eta Bertsozale Elkartek lau urteko finantza planarekin funtzionatzen du. Elkartearen aurrekontua berez defizitariora da, baina lau urteko edo ia bost urteko ziklo batean, hau da, hurrengo txapelketa izan artean, defizit horri aurre egiteko oinarria ematen dio txapelketak. Egoera ekonomikoa alda-



tu da, Elkartearen gastuak ere handitu dira, defizitak gora egin du eta finantza zikloari edo ereduari buelta bat ematen ari gara orain. Txapelketa urtebete atzeratu izanak eragin ekonomikoa izan du Elkartearentzat, baina ez du guztiz estutu, Elkartek urte luzeetako ibilbidea duelako eta urteetako oinarri ekonomikoa hor zegoelako.

G. AGOTE: Elkartek egiten dituen proiektu batzuk ezingo litzuke egin txapelketak ekartzen duen diru sarrerarik gabe.

Txapelketaren emaitza ekonomikoak borondatezko lanari esker ere badira. Zenbat bolondres aritzen da txapelketan lanean?

I. TRENOR: Txapelketako saioak zein herritan antolatu erabakitzerakoan kontuan hartzen da herri horretako bertso mugimendua nola dagoen, zer harreman ditugun... txapelketak herri eta eskualde

mailako bertso sarea ere indartzen du. Sare horretatik etortzen da bolondres asko.

G. AGOTE: Txapelketa zazpi lurraldeetan egingo dela esaten dugunean, errealitatearen isla da: lurralde batzuetan indartsuago dago bertsolaritza eta beste batzuetan ez hainbeste, baina zazpi lurraldeetan egon bagaude. Lizarran saio bat eta Gotaine-Irabarnen beste bat egitea erabaki badugu, zerbaitegatik da, toki horietan oinarrian talde bat bada goelako.

I. TRENOR: Lan motei begiratuta, txapelketan badira lan teknikoak, estrategikoak, barrura begirakoak, kanpora begirakoak... lan mota horietan denetan eta erabakiguneetan aritzen dira bolondresak. Hori da aberatsena. Borondatez lan egiten duen jende masa hori guztia gabe ezinezkoa litzateke txapelketa antolatzea.

G. AGOTE: Elkartearen jarduera ere hala da, egiten diren lan asko egiten dira bollandresen babes eta parte-hartzearekin. Txapelketa, Elkartek urtez urte egiten duen lanaren isla da.

Txapelketa Nagusian lurralde bakoitzak ordezkari kopuru ezberdina du. Aurreko edizioako finalista guztiek dute parte hartzeko aukera, eta horiez gain, Arabatik 2 bertsolari arituko dira, Bizkaitik 10, Gipuzkoatik 16, Nafarroatik 5 eta Iparraldetik 3. Proportzio horietan izan da bilakaerarik? Aurrera begira bada aldatzeko asmorik?

I. TRENOR: Elkartek txapelketa antolatzeke ardua hartu zuenetik bilakaera oso handia izan du bertsolaritzak eta lurralde bakoitzean dimentsio handia hartu du. 1986an zehaztu ziren kopuruak eta urteotan guztietan kopuru horiek eztabaidara ekarri izan dira behin baino gehiagotan Elkarteko zuzendaritzara, eta aldatu izan dira. Orain ere birplan-teatzeko garaia da: finala jokatu ondoren txapelketa orokorrean begiratzeko momentua izango da, eta horren barruan errebisatu nahi dugu ea lurralde bakoitzerako ezarria dagoen kuota egokia den edo aldatu behar den.

G. AGOTE: Azken aldaketa gogoan dut, Nafarroak bosgarren ordezkaria lortzea izan zen. Saiatzen gara datu batzuetan oinarrituta txapelketa egungo bertsolaritzaren argazki bat izan dadin, baina ez da kontu matematiko bat. Horrez gain, Elkartek baditu estrategia batzuk eta horien arabera ere erabakiak hartzen ditu.

Epaile taldearen argazkia ikusita, jendetsua, 50 urtetik beherakoa eta genero aldetik nahiko parekidea iruditu zait. Nola iritsi da talde hori izatera?

G. AGOTE: Ikusten ez den lan handia dago epaile taldearen atzean. Epaitzen ari diren horien ondoan, badira epaile ordezekoak, badira puntuaketak kalibratzen aritzen direnak... horretan aurre-rapausoak eman dira, duela hamar urte Euskal Herriko epaile taldea txapelketa-rako propio aktibatzen zen. Azken urteotako ahalegina izan da talde horrek etengabeko prestakuntza jasotzea eta taldea aktibo mantentzea. Taldea sendotzen eta anitzago izaten ere ahalegindu gara.

I. TRENOR: Epaileen lana oso bakarkakoa da eta talde izaera indartzea beharrezkoa zen, elkarri babes emateko eta kontrasterako: irizpideen inguruan ez-

tabaidatzeko, erreferentziak partekatze-ko... eta horretan lan egin du Elkartek. Herrialde bakoitzean badira epaile taldeak, baina aberasgarria izan da Euskal Herri mailan beste epaile taldeekin partekatzea.

G. AGOTE: Gai-jartzaile eta epaileen lana prestigiatzea ere behar da.

I. TRENOR: Lan ikusezina eta oso kritikatu da bi talde horien.

Gai-jartzaile taldea nola osatzen eta lantzen da?

I. TRENOR: Lurralde bakoitzean gai-jartzaile talde bat dago, herrialdeko txapelketaren bueltan biltzen dena. Euskal Herri mailako gai-jartzaile taldea osatzeko, herrialde bakoitzeko taldeak bi-hiru pertsona aukeratzen ditu. Talde honetan oso dinamika bizia dute: kide denak biltzen dira eta orduak ematen dituzte gaiei jira eta buelta ematen.

Bertsolariek egingo dituzten lan motak nola eta noiz erabakitzen dira? Horretan ba al da aurtren aldaketarik?

I. TRENOR: Txapelketa antolatzeke taldea hiru lantaldetan dago banatuta: komunikazioa, azpiegitura eta aurtren sortu den talde berria, bertsogintzarena. Txapelketa honetan parte hartuko ez duten epaile, gai-jartzaile, bertsolari eta bertsotzaileek osatu dute bertsogintza taldea, Elkarteko Sustapen arduradunarekin eta koordinatzaileetako batekin batera. Eta talde honek egin duen lanetako bat izan da ariketa motak aztertzea eta arautzea.

G. AGOTE: Txapelketako ariketetan aldaketa handiak egitea oso zaila da. Batzuen ustez txapelketak esperimentazio gune izan behar du baina beste askok dio esperimentatzeko tokia plaza dela edo beste gune batzuk badirela eta txapelketak bere arauak dituela. Ariketak asko aldatzea zaila da eta kontsentsu handia behar du.

I. TRENOR: Ariketa motak ez dira aldatu, baina bertsogintza taldeak hartu duen ausardia izan da gai-jartzaile taldeari ariketa horiek planteatzeko modua zehaztea. Adibidez, A bertsolaria B bertsolariaren "kontra" jarri behar duen gaiak, edo A eta B "elkarrekin" jarri behar dituen, edo biak egoera baten aurrean jarri behar diren... orain arte gai-jartzaileek hori ere erabaki behar zuten, ea "A Bren kontra" zortziko handian edo hamarreko txikian jarri... eztabaida horietan denbora asko joaten da. Aurtengoan, hori bertsogintza taldean adostu dugu eta gai-jartzaile taldea edukian zentratu ahal izan da.

Bertsogintza taldeak "kartzela" "ganbara" bihurtu du. Zergatik izena aldatu?

I. TRENOR: Bertsolarientzat berez bada gogorra lan horretako egoera hori, gainera "kartzela" deitzeko. Izenak ez du goxatzen momentu hori, eta beste esanahi bat emateko gogoia genuen. Izen pila baten artean "ganbara" hautatu da, "ganbara" ez delako soilik espazio bat, "burua" adierazteko ere erabiltzen da: eta egoera horretan bertsolariek buruari mila buelta ematen dizkiote eta kontzentrazio momentu bat da, bertsolaria bere baitan, bere ganbararekin egotea.

Bestalde, txapelketan zehar bertsogintza taldeak behaketa lana egingo du eta babesgune ere izango da, bai gai-jartzaileentzat, epaileentzat eta bertsolarientzat.

Babesgune funtzioa aipatu duzu. Txapelketak jendaurrean agertu beharra dakar eta milaka entzuleak epaile bihurtzen dira. Foku indartsudun oholtza hori oso pasarella zorrotza da bai bertsolari, gai-jartzaile eta epaileentzat...

I. TRENOR: Bai, esposizioa oso handia da. Horregatik da garrantzitsua talde



izaera, bai gai-jartzaileak eta epaileak talde gisa aritzea, talde horren babesa beharrezko baita gorabeherak eusteko, indartsu ateratzeko... Zeren momentua iristean bakarrik igoko da gai-jartzailea oholtzara, edo bakarrik epaituko ditu bertsoaldiak epaileak. Bai gai-jartzaileak eta bai epaileak Elkartearen proiektuaren parte dira eta gure babes osoa dute. Honako hau da txapelketa honetako epaile taldea, Elkartek hala aukeratu, eta pertsona horiek dira erabakiko dutenak, nahiz eta erabakia entzule batzuei gustatu ez. Lehiaren joko arauak hauek dira.

G. AGOTE: Ez da xamurra, bertso mugimendu osoari eragiten dion lurrikara baita txapelketa. Kritikak egin behar dira, baina modu eraikitzailean. Txapelketan tentsio momentuak izaten dira eta gure lana da horiek bideratzea eta txapelketaren ostean aztertzea zer egin den ongi eta zertan huts egin den.

I. TRENOR: Txapelketan denoi ateratzen zaigu barruan dugun epailea. "Gustatzen zait edo ez zait gustatzen", edo "honekin asmatu du edo ez du asmatu". Lehen komentarioak saioko aretoan bertan edo saio osteko potean geratzen ziren baina sare sozialak martxan daudenetik, komentarioak biralak egiten dira. Batbatekoa den kultur jarduera bat 140 karakteretan epaitzen da eta esaldi horrek erabat deskontestualizatuta bide luzea egiten du.

Txapelketako finalean 14.000 entzule inguru bilduko dira. Asko da, baina ez dira zerutik eroriak. Plazetan 35.000 entzule inguru bildu ziren 2021ean.

I. TRENOR: Publikoaren aldetik, ez dakit noraino den txapelketa plazaren isla.

G. AGOTE: Badira entzule asko lau urtean behin txapelketako finalera soilik joaten direnak, eta hori txapelketaren bertuteetako bat da.

I. TRENOR: Eta badira herriko bertso saiora bai eta finalera joango ez diren beste asko. Lehia erakargarri egiten ez zaion jendea ere existitzen da.

G. AGOTE: Finalera doan jende asko harritzen da jende kopuru hori ikusita, batez ere euskal kultura urrun dutenak. Finala ez da ezerezetik sortu den zerbait. Gertakari bat da, munduko bazter batzuetatik inbidiaz begiratzen digute eta hori guztia baliatu behar dugu gure oinarria aberasteko. Finalera soilik doazen horietatik batzuk zaletuko dira, agian umeren batek bertso eskolara joan nahiko du...

I. TRENOR: Finala ederra da, baina txapelketako saio denak dira gozatzekoak. Finalurreko saioetan ere entzule asko sartuko da, 1.500-3.000 artean.

Finalean emakume gehiago sartuko ote diren ikusmina bada. Plazan parekidetasuna ez dago urruti: Elkartearen datuen arabera 2022an plazetako saioetan %53 izan ziren gizonak eta %47 emakumeak...

I. TRENOR: Nik uste plazaren bilakaeraren emakumeen kopurua ugaritzeak ez duela arrazoi bakar bat. Elkartek ez ditu plazak antolatzen, askotariko antolatzaileek baizik; baina antolatzaile horien artean badago kontzientzia bat. Izan daiteke pixkanaka kopuruz ere emakume gehiago direla plazan ari direnak eta ibilbide luzeagoa osatzen ari direnak.



Txapelketaren historian finalean kantatu duen bertsolari zaharrena **Txirrita** da (76 urte zituen 1936an txapela jantzi zuenean) eta gazteenak 19 urterekin **Unai Iturriaga** (1993ko finalean) eta **Sustrai Colina** (2001eko finalean).

Aurtengo txapelketan parte hartuko duen bertsolari gazteena Gorka Pagonabarra da (22 urte aurten) eta helduenak Unai Agirre eta Aitor Mendiluze (47na urte aurten). Txapelketa honetan bertsolarien adin media 34 urtekoa da, 2017koan izan zen bezalaxe, eta azken 20 urteetako batzuek besteko zaharrena da: 2001ean 27koa izan zen adin media eta geroztik igotzen joan da (2005ean 28 urtekoa zen media, 2009an 30ekoa, 2013an 33koa).

Eta bestetik, pandemiaren ostean, bertso saio mota batzuk martxan jarri arte denbora tarte bat pasatu zen, eta justu parte-hartze desoreka handiena izan ohi da saio horietan: otordutakoetan eta librekoetan. Abiatu ziren saioak jaialdiak edo saio bereziak izan ziren eta horietan emakumeen parte-hartzea orekatuagoa da. Orain, lagunartekoak eta libreko saioak normaltasunera etorri direnean, beste saio motak ez dira jaitsi. Horregatik, datuek bai diote parte-hartzea nahiko orekatua dela, baina bada oraindik zer landua.

Elkartea baliabideak jartzen ari da parekidetasuna bultzatzeko: hiru zeharlerro ditu eta horietako bat da feminismoa. Egitasmo guztietan zeharlerro horiek aplikatzeak baditu bere ondorioak eta agian ondorio horiek ikusten hasi gara. Beste gauza bat da, bakoitzak zer espektatiba jartzen dituen txapelketako finalean.

Lurraldetasunari begiratuta ere aztertu daiteke finaleko zortzikotea. Herrialdeetan ba al du eraginik bertakoak finalera sartzeko?

I. TRENOR: Niretzat, behin herrialdeetako txapelketak amaituta Txapelketa Nagusia hasten denean, Euskal Herriko bertsolariak dira.

G. AGOTE: Aldaketa horiek nahi baino motelagoak dira. Araban eta Iparraldean ematen ari den garapena ezin dugu urte batetik bestera ikusi Euskal Herriko finalean, kontuan hartuta gainera finaleko argazkia azken hiru txapelketetan oso antzekoa dela.

Nafarroatik begiratuta, bai sumatu dut Saioa Alkaizak txapelketa irabazi izanak eragina izan duela: emakumea, gaztea eta Iruñerrikoa delako, berak gogorazi zuen bezala D ereduko alaba... Jende asko identifikatu da berarekin, bereziki inguru erdaldunean. Bera bai, erreferentzia bihurtu da eta inportantea da. Baina txapelketa nagusiko finalarekin badago tema berezi bat eta txapelketa nagusia munstro bat da, oso zaila da mugitzen. Orain egiten ari garen lanaren emaitzak etorriko dira, baina agian ez berehalakoan.

I. TRENOR: Errazago sumatzen dira al-daketak herrialdeetako txapelketetan.

G. AGOTE: Eta logikoa da pentsatzea hori iritsiko dela Txapelketa Nagusira, baina agian ez nahiko genukeen abiaduran. Gauzak eraldatu nahi ditugu: batetik badakigu non dagoen bertsolaritza errota, baina, bestetik, ari gara eremu berriak irabazten. ●

GURE HEROIAK

Elkanoren eta Euskal Herriko kolonialisten
historia bat

20€

280 or.

+ 5€

bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

BIZUM bidez ere
ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Ez zu eta ez ni ez gara
kolonialista, inbaditzaile,
konkistatzaile, ezta esklabista
ere. Inork ez ditu bere egiten
euskal herritar askok (ere)
mende luzez egindako astakeria
horiek. Ordukoaz guk ez dugu
ardurarik. Baina konkistatzailea
esploratzaile, kolonizatzailea
humanista, eta esklabista
enpresa-gizon bilakatuta,
iraganean gertatutakoa hemen
eta orain ospatzen eta zuritzen
dugunean, orduan bai, ardura
gurea da berdintasunean
eta justizian oinarritutako
etorkizuna eraiki nahi badugu.

 **ARGIA LIBURUAK**

'EZIN KABITU!' JARDUNALDIAK

Aktibismo lodiak mugarria jarri du Euskal Herrian

Iragan asteburuan, irailaren 9tik 11ra, Euskal Herriko I. Jatunaldi Lodiak ospatu dira Gernikako Astra Gaztetxean, Ezin Kabitu kolektiboak antolatuta. 150 pertsona batu dira lodifobiak zeharkatutako gorputzen politikak aztertzeko. Kolektiboak euren web-orrian azaldu bezala, Euskal Herri patriarkal eta lodifoboaren baitan hiru eguneko irla sortu nahi izan dute elkarrekin egoteko, pentsatzeko, jolasteko, tripak eta izterrak elkarri igurzteko, lardaskan aritzeko, jateko eta konspiratzeko.

 GARAZI BASTERRETXEA

Euskal Herriko txoko desberdinetako lodiak sortu dute Ezin Kabitu kolektiboa, eta urtebete daramate biltzen, elkar ezagutzen, ekin-tzak proposatzen, hausnartzen, jolas-ten... Taldeak salatzen du jendartearen ez dagoela euren gorputzentzako lekuri: ez direla kabitzen osasun sistema nagusien "osasuntsu" egoteko irizpideetan, jai alternatiboen amaieran ematen diren ligoteoetan, heteroarauan, ingurukoek dituzten espektatibetan, treneko eserlekuetan, gimnasioaren kultura nartzisistan, zilegizko politikariaren kategorian, familia eredu idealetan, lanpostuen baldintza kapitalistetan edota ikusgarritasun publikoarekin zerikusia duten rol edo zereginetan. "Bizi guztia arnasteko lekuri uzten ez diguten arauak lotuta eta kabitu ezinik".

Baina maitasunez eta harrotasunez ezin kabituta ere badaude, hunkituta eta motibazioz gainezka, Euskal Herriko lodien arteko aliantzak egosten. Ezin kabitu daude eta argi dute kabitu

ezin duten sistema horretan ez dutela kabitu nahi.

HIRU EGUNeko EGITARAU ZABALA

Egitarau zabala prestatu zuten, hiru egunetan zehar hainbat gairen inguruan aritzeko, barrez lehertzeko, norbere gorputzean barrena bidaiatzeko, elkar ukitzeko, hunkitzeko, kolorez betetzeko. Elkarren begiraden konplizitateaz, hitzez, isiltasunez, oihuez eta besarkadez sarea josteko.

Ostiralean ongietorriaren eta afariaren ondoren Euskal Herriko I. Bertso saio lodia ospatu zen Onintza Enbeita, Uxue Alkorta eta Haizea Arana bertsolariekin eta Lierni Altuna gai-jartzaile lanetan ari zela. Saioan zehar hainbat pertsonaia lodiren ahotik abestu zuten bertsolariak: lehen lodia zen lagun argala eta lehen argala zen lagun lodia, ligeek beren artekoa ezkutuan mantentzeko eskatzen dioten pertsona, medikuarengana ezko-tapoiak dituelako joan eta

medikuak argaltzeko esan diona, guztien harridurarako herriko mendi mar-txan parte hartzen duen lagun pare, hondartzan eguzkia hartzen egonda ere tolesdurak zuri dituen hirukotea, sare sozialetako edertasun ereduez barre egiten duten lagunak, "zeure burua maitatu" behin eta berriz entzuten duen emakumea, ingurukoak "lodi" deitzen dituen umea... Enbeitak bertso saioan zein *Berria* egunkarian azaldu zuen lehen aldia izan zela bere bertsoengatik bakarrik epaitua sentitu zena, bere gorputzak zerikusirik izan barik.

Jardunaldietan aliatu ez-lodiak egon arren, soilik pertsona lodiak parte hartu zezaketen tailerretan, lodientzako espazio seguruak izan zitezen; hausnartzeko, gorputza erdigunean jartzeko eta jolasteko irlak. Mugimendu askearen teknikaren bidez norberaren gorputza esploratzeko eta besteekin harreman-tzeko; arte martzialen bidez amorrua izerdituz eta norberaren gorputzaren indarra onartuz, disfrutatzeko, barre



egiteko eta horretaz baliatzeko; norberaren esperientziak partekatzeko eta antzerkiaren bidez horiek islatzeaz gozatzeko; Body Paint teknikaren bidez norberaren gorputza samurtasunetik onartzeko; gorputza sokekin lotzearen bidez sentsazioak eta emozioak komunikatzeko eta partekatzean datzan Shibari delako arte japoniarra ezagutzeko eta frogatzeko; norberak amarekin izan duen harremanaz hausnartzeko eta ingurukoek norberarengan dituzten espektatibez hitz egiteko; zineman lodiak islatzeko moduei erreparatzeko; loditasunaren eta gaixo egotearen arteko balizko loturak eta sortutako normalizazio argalak dituen arriskuak detektatzeko, eta horri aurre egiteko tresnak identifikatzeko.

Tailerrez gain, ekintza mixtoak ere egon ziren. Larunbatean, bazkalostean, Nerea Arriola "Arrol" antzezleak *Hain guapa zaude ez dirudizula zu monologoa* aurkeztu zuen, lodiak egunerokoan pairatzen dituzten biolentziak umorearen

eta ironiaren bidez kontatuz; ikusleak barrez leherrarazi zituen. Horrez gain, musika entzuteko eta gerribueltak astintzeko aukera ere egon zen: larunbatean Soy un poco pringada eta Virrutas DJekin, eta igandean Marta & Herbas rapkantariaren emanaldiarekin eta DJ Warra sen doinuekin. Gernikan zehar poteoa ere egin zuten, eta igandean Zea Mayseko Aiora Renteriak kontzertu akustikoa eskaini zuen.

LODIFOBIAREN ERTZ ASKOTARIKOAK MAHAI GAINERA

Larunbat arratsaldean mahai-inguruan parte hartu zuten Stop Gordofobia web-orriaren sortzaile Magda Piñeirok, Bartzelonako Komando Gordix kolektiboko Violan Mar.Otok eta Ezin Kabituko Mijo Lizaraburuk eta Nahia Ruizek. Piñeiro uruguaitarra da, baina Tenerifen (Kanariak) bizi da aspalditik eta aktibismo lodian erreferente nagusietako bat da Espainiako Estatuan. 2016an *Stop Gordofobia y las panzas subversas* (Stop lo-

difobia eta sabel handi subertsiboak) liburua argitaratu zuen, gorputz idealetan oinarritutako estetika salatzeako kanpaina batetik abiatutakoa, eta 2019an kale-ratu zuen bigarren lana, *10 gritos contra la gordofobia* (10 oihu lodifobiaren aurka), lodiak jendartearen espazio guztietan eta uneoro pairatzen duten diskriminazioa eta zapalkuntza salatzen dituen. Mar.Oto galiziar aktorea eta poeta da, eta hamarkada bat darama lodifobiaren aurkako militantzia jardunean, Beth Dittoren eta Riotsen indarrak bultzatuta. Entzute handia izan zuen Bartzelonako Kabaret lodian parte hartu zuen Piñeirorekin batera, eta gaur egun ohol-tza gainera lanak eta gazteekin ematen dituen tailerrak tartekatzen ditu. Ezin Kabituko Lizaraburu filosofia ikaslea da EHUn eta Magda Piñeiro, Lucrecia Masson eta beste ekintzaile lodiak ezagutu ondoren konturatu zen horrelako zerbait behar zela Euskal Herrian; duela urtebete kolektiboa sortu, eta biltzen eta ekimenak antolatzen hasi ziren. Ruiz ere unibertsita-

tateko ikaslea da, eta emakume lodiak artean ikertzen ari da.

XXI. mendeko jendartean dauden erronkez hizketan hasi zuten mahai-ingurua. Lizarzabururen hitzetan, erronka handia dira neoliberalismoa eta digitalizazioa; izan ere, pisuaren, janariaren eta gorputzen etengabeko neurketa, *smartphone*-en bidez eguneko pausuen kontaketa, taupaden erregistroa... kontrol mekanismo bezala, oso teknika beldurgarriak dira subjektu otzanak sortzeko. Jendartea lodi izatearen beldur da, kontrola galtzearen beldur, eta digitalizazioak irudiaren masifikazioa dakarrela azpimarratu zuen. Lizarzabururen arabera, “lodifobia aitzakia da, helburua jendarte osoa kontrolatzea da”. Ruizek gehitu zuen gorputz batzuk idealizatu daudela, eta ideal horiei jarraitzeko eta norbere gorputza aldatzeko presioa dugula, behartuta ez gaudela pentsatzen dugun arren. Era berean, gure hitzen eta gorputzen arteko disoziazioa aipatu zuen, geure gorputza onartzen dugula esaten baitugu askotan, baina gero praktikan ez baita hori gertatzen.

Be positive mezuek eta “zaindu zaitetz” edo antzeko esaldiek sortzen duten kalteaz ere aritu ziren. Beren arabera, halakoek sinestarazten digute gure erabakiek baldintzatzen dutela gure gorputza, inguruak eta politikek duten eragina estaliz. “Ospitaleetan, adibidez, oheak diseinatu dira gorputz maskulino argalentsat. *‘Be positive’* esaten digute, baina osasungintza gero eta arrotzagoa da, pribatizatuagoa, prekarioagoa...”, argitu zuen Lizarzaburuk. “Oso garrantzitsua da mediku lodifobo baten kontsultatik atera eta gero kexa jartzea erregistratuta geratu dadin, bestela baitirudi ez dela ezer gertatzen”, Piñeirok. Azken honek zera gehitu zuen: jendartea oinarri lodifobikoen gainean eraikia dagoenez, estatuek politika lodifobikoak sortu eta normalizatzen dituztela. Esandakoa azaltzeko adibidea jarri zuen: obesitatea prebenitzeko legeek pertsona lodietan jartzen dute fokua eta ez jendartean, eta era berean, hainbat espazio ukatzen dizkiete gorputz lodiei, beren baldintzetan eragina izanik; adibidez, enpleguetarako mugak jarritz eta, beraz, euren baldintza sozioekonomikoetan eraginez. “Nia- ren auto-kreazioaren mitoarekin apurtu behar dugu, guk ez dugu geure burua sortzen eta ez dugu guztia aukeratzen, askotan ezin dugu gorputza moldatu; mingarria da pentsatzea lodifobiatik atara gaitezkeela bakoitza norbere kabuz”.



Lekeitioko Potxuak Martxan talde feministak hondartza ondoko paretan egindako lodifobiaren aurkako murala.

Kolektiboan lodifobia problematizatzen eta hausnartzen hastearen onurez ere mintzatu ziren. “Niri taldeek jaten erakutsi didate berriro, eta tresnak eman dizkidate gorrotoari aurre egiteko eta maitatzen ikasteko”, adierazi zuen Mar. Otok. Piñeirok eta Ruizek kontatu zuten beren gorputzean bizi izan dutela gertatzen denari izena jartzeak ematen duen babesa eta atsedena, eta horretan taldeak izandako garrantzia aitortu zuten. Taldearen bidez, besteak beste, existitzeko eskubidea dutela gogorarazi dute, jendaurrean hitz egiten ausartu dira, norbere buruaz barre egiten ikasi dute... Eta taldearen bidez, baita ere, lortu dute izerdia errekonozitzea, beren erritmoa onartzea eta kirola gozamenagatik egitea, argaltzeko helbururik barik.

Mar.Otok hezkuntzaren garrantzia ere azpimarratu zuen, testuliburuetan agertzen diren pertsonak beti argalak izateak sortzen dituen zapalkuntzez, heziketa fisikoko neurtzeko parame- troek eta bestelako ereduak dituzten arriskuez. Irakasleak lodifobiaren aurka heztea beharrezkoa dela azaldu zuen, besteak beste jantokian lodiak errudun sentiarazi ez ditzaten, edota gorputz normatiboez harago doazen kirolak proposatu ditzaten. Piñeiro argaltzeko sistema berriez (ez jateko ahoa ixten duten hortzetako imanak, botaka edo kaka egiteko pilulak, organo funtzionalak suntsitzen dituzten eba-

kuntzak...) eta horien atzean dagoen lodifobiaz ere aritu zen.

Borroka lodi aktibistaren puntu es- tratetikoez hitz egiteko tartearen hartu zuten. Piñeirok mahai gainean jarri zuen sare sozialetan egiten den aktibismoa, eta aitortu zuen lodiek elkar aurkitzeko leku bezala sareak duen potentziala. Halere, adierazi zuen sentitzen duela badela unea hortik ateratzeko, eta sareaz harago ba- besteko eta elkar sostengatzeko sareak sortzekoa –medikuarengana bakarrik ez joateko, esate baterako-. Beste beharri- zan bat ere aipatu zuen: betetzen ditugun espazioetan (espazio feministetan, oku- patutako espazioetan, ikasle mugimen- duan...) lodifobiaz hitz egiten hastekoa, informazioa zabaltzeko dadin. “Existitzeko baimena eskatzeari utzi behar diogu eta lodi izateaz harro gaudela esan”.

Lizarzaburu instituzioekin lan egi- teko zailtasunez aritu zen, baita horiek geureago egitearen garrantziaz ere: “Esaterako, gaixorik bagaude eta Osa- kidetza joan behar badugu, garrantzi- tsua da gorputz guztien tamainako gur- pildun aulkia egotea. Hori bermatzeko ere egin behar dugu lan, instituzioak erabili behar ditugu”. Lodifobia kartze- la gisa irudikatu zuen, zeinaren baitan bizi garen guztiok, eta gorputz lodien aurka erabiltzen den biolentziak gor- putz guztiak kontrolatzeko xedea duela adierazi zuen: “Inplikatu beharra dago biolentzia hori ez erreproduzitzeko, eta

feminismoarekin, transfeminismoarekin, aliatu beharra ere bai. Ulertu behar dugu ez dela kasualitatea jendeak argal egon nahi izatea, aktibismo lodiak balio du desirak eraldatzeko eta desiratzeko esan ez digutena desiratzeko”.

AURRERA BEGIRAKO PAUSOAK BURUAN

Entzuleek ere hainbat kezka eta zalantza adierazi zituzten. Aipatu zuten elkarrekin hitz egitearen eta minak konpartitzearen beharra, baina hurrengorako pausuak zeintzuk diren arakatu behar dela. Bat egin zuen Lizarzaburuk, adieraziz borrokarako gakoa den unean gaudela, plazeretik militatzea berebizikoa dela, baina ez direla ahaztu behar egunero pairatzen ditugun politikak eraldatzeko estrategien beharra, ezta inguruak gudan duen eragina ere. Zentzu horretan, Piñeirok jarrera lodifoboak –norbanakoenak zein egiturazkoak– salatzeko beharrean jarri zuen arreta (langile lodiak ez kontratatzea, guraso lodiak euren haurrak zainduko ez dituztela pentsatzea...), pixkanaka praktika horiek desnormalizatzen joateko. Haren arabera, sindikatuek ere salatu behar lituzkete jarrera lodifoboak. Euskal He-

“Existitzeko baimena eskatzeari utzi behar diogu eta lodi izateaz harro gaudela esan”

Magda Piñeiro

rriko mapa lodifoboa eta “lodilaguna” egin zitekeela ere aipatu zuen parte-hartzaileetako batek, Pariseko adibide bati jarraituz; hau da, norberak mediku eta instituzioekin izandako esperientziak idazteko espazioa sortu, leku batera heltzean jakin ahal izateko zein lekutan izango diren pertsona lodiak ondo tratatuak eta zeintzutan ez.

Igande bazkalostean parte-hartzaileetako batzuk etxera itzultzeko motxilak prestatzen ari ziren, beste batzuk goiko pisuan lurrean botatako koltxoietan atseden hartzen, elkarri kontaktuak eskatzen, mahaia batzen. Oraindik agur-

tu ere egin gabe, berriz elkar ikusteko zeukaten gogoaz mintzo ziren asko, antolakuntzaren partetik sentitu zuten zaintzaz eta babesaz ziharduten beste batzuk, janari beganoa dastatzean sentitutako plazeraz mintzo zenik ere bazen. Giro horretan murgilduta zeudela, bat-batean gitarraren lehen kordek eta Aiora Renterriaren ahots lagunak azken aldiz denak elkartzeko deia egin zien. Euskal Herrian ohikoa ez den beroa egiten zuen, bertan elkartutako gorputz lodiak errealtate lodifobo eta patriarkal hotza erretzen ari ziren seinale. Izerditan blai egon arren, elkarrengandik gertu eseri ziren, elkarrekin hunkitzeko eta txalotzeko, okupatzen zuten espazioaz arduratu gabe okelak dantzan jartzeko, elkarri agur esan eta etxerako bidea hartu aurretik elkarren begiradetan hurrengo topaketan ernalduko zen hazia ikusteko.

Etxera emozioz eta harrotasunez ezin kabiturik itzuli ziren bai antolatzaileak bai parte hartu zutenak, lurrean idatzirik geldituko diren pausuak eman dituztela jakinda, negar malko bakoitzak lurra ernalduko duela jakinda, pixkanaka geure gorputzak estutzen dituzten ertzak gorputz lodien beroaz borobiltzen ari direla jakinda. ●



Iragarki honetan azaltzen diren pertsonak ez dira errealak, ordenagailu batek sortu ditu ausaz.

Benetako pertsonak ordenagailu batean ezagutzeko zatoz **kaixomaitia.eus** atarira!

 **kaixomaitia** Euskaldunon harremanetarako webgunea

8.000 lagun dituzu zain





GIORGIA MELONI PRESIDENTE?

Eskuin muturra Italia gobernatzeko zorian

Mario Draghiren dimisioak hauteskunde presidentzialetara eramanean zuen Italia eta irailaren 25ean izango dira hauek. Alderdi faxistaren oinordeko den Italiako Anaiak (Fratelli d'Italia italiaraz) alderdiko Giorgia Meloni ageri da lehena inkestetan. Adierazgarria da, kontuan hartuz gero, gaur egungo parlamentuan bosgarren indarra dela. Meloni efektua aipatzen dute adituek. Baina zer ari da gertatzen herrialdean? Eta, nor da Meloni?

 **XUBAN ZUBIRIA**

Erromaren bihotzean 1580 urtean inauguratu zutenetik, buruzagi andana igaro da Chigi jauregitik. Italiako lehen ministroen etxebizitza hurrengo apopiloa noiz iritsiko zain dago. Bertan asentatzeko aukera gehien Italiako Anaiak alderdiko hautagai ultraeskuindarrak dauka. CISE-ren (Italiako neurketa elektoralen etxea) arabera botoen %25 eskuratuko luke Melonik. Atzetik leukake Enrico leta (PD) zentro ezkerreko hautagaia, botoen %22 eskuratu. Azken asteetan goranzko joera hartu duen 5 Izar Mugimenduko Antonio Conte Lehen ministro ohia botoen %15 inguruan litzateke eta %10ean leudeke Matteo Salvini (Lega) eta Silvio Berlusconi (Forza Italia).

Aurreikuspenak beteko balira Melonik nahikoa luke lubakia partekatzen duen Salvini ultraeskuindarraren, eta nahi bada, ostean, Silvio Berlusconi-ren babesa lortzea gobernua osatzeko. Italian aspaldidanik bihurtu da zentro eskuina eskuin muturraren morroi. Urteetan herrialdea gobernatu duen *il Cavaliere* –Berlusconi– hurrengo asteetan eskuin muturreko gobernu indartsu bat lotzeko giltza bilaka liteke. 1945ean Italian faxismoa garaitu zutenetik gobernurik eskuindarra litzateke.

Oroitu behar dugu 2018an eskuin muturra iritsi zela gobernura hauteskundeak irabazi zituen 5 Izar mugimenduak Matteo Salviniaren Legarekin gobernu-ituna sinatu ostean. Inkestetan hirugarren ageri den Antonio Conteren gobernu hark balio izan zion Salvini bere barne ministro lanetan herrialdeko gutxiengo ugarien aurka neurriak hartzeko. Hori gutxi ez eta Mediterraneo itsasoa gurutzatu bidean ziren etorkinei herrialdeko portuak ixten ere ausartu zen. Igande hone tan gutxiengoekiko eta migrazio politiketan diskurtso bera duen Italiako Anaiak gailendu liteke. 2018an ez bezala, oraingoa neofaxistek gehiengo izan dezakete parlamentuan eta bertatik osatuko litzatekeen gobernuan.

BAINA NOR DA GIORGIA MELONI?

Nola da posible alderdi faxistaren oinordeko naturala hauteskundeak irabaztear egotea? Zer nolako kotetara eramán lezake autoritarismoa eskuin muturreko ministroz jositako gobernu batek? Ezin jakin, argi dagoena da

Bere langile jatorria
jendearengana
heltzeko eraiki
duen errelato
tranpatiaren puntu
garrantzitsuenetako
bat izan da

Aurreikuspenak
beteko balira,
Melonik nahikoa
luke Salviniren eta
Berlusconiren babesa
lortzea gobernua
osatzeko

agertoki posible hau ahalbideratu duen faktoreetako bat Giorgia Meloniren abilezia politikoa izan dela. Andaluziako hauteskundeetan Vox alderdia babesteko mitinean egindako adierazpenengatik ezagutu zuen askok Espainiako Estatuan. “Familia naturalari bai! LTGB lobbyei ez! Identitate sexualari bai! Generoaren ideologiari ez! Muga seguruei bai! Migrazioa masibori ez! Gurutzearen unibertsalitateari bai! Biolentzia islamistari ez!”. Kanpainan murgildu denean nabarmen moderatu bada ere, hortxe egin dezakeenari buruz zenbait pista. Hemerrotekak ez du barkatzen.

Marine Le Pen, Nigel Farage, Voxeko jauntxoak... Lider erreakzionario europarren bizi estilatik urruti, Erromako Garbatella auzoan jaio zen. 10 urte zituela bere aitak abandonatu zuenetik, gogor egin zuen lan Porta Porteseko merkatuan, amarekin bizimodua au-

rrera ateratzeko. Bere langile jatorria jendearengana heltzeko eraiki duen kontakizun tranpatiaren puntu garrantzitsuenetako bat izan da. Tranpatia diot bere kontakizunari erreparatu beharrean bere militantzia hastapenei erreparatuko bagenie, hain justu langileen eskubideen alde egiten zutenei eraso egiten zieten faxistekin lerrokatu zelako. Giorgio Almirante ultraeskuindarraren jarraitzailea, MSI alderdi neofaxistaren ideiekin egin zuen bat eta mugimenduaren gazteriak ziren Gazteriaren Frontean hasi zuen bere ibilbide militantea Giorgia Melonik.

Ni Giorgia naiz. Nire sustraiak eta ideiak liburu biografikoan aitortzen du politikan erabat murgiltzeko pausoa Paolo Borsellino alderdikide eta mafia-ren aurkako epailearen erailketa izan zela. Cosa Nostra erakunde mafiosoak hil zuen Palermon, Giovanni Falcone epailea hil eta bi hilabetera. Langile jatorriaz batera ordenaren alde egituratu duen diskurtsoan ez da aspertzen Borselinori gorazarre egiteaz, praktikan baina, mafiaren aurka egiteko neurrien arrastorik ez daiteke aurkitu bere programan.

VITERBOTIK CHIGIRA

1980ko hamarkadaren bukaeran hezi zen politikoki, ezkertiarren eta neofaxisten arteko istiluez jositako Erroma hartan. Borroka antifaxistaren ekinez, hiriaren iparraldeko auzo burgesetan gotortu behar izan zuen mugimenduarentzat Garbatella langile auzotik zetorren Meloni berehala bihurtu zen heroi moduko bat. Azkar egin zen hiri-buruko liderren lagun. Horrela ezagutu zuen Fabio Rampelli, egun Italiako parlamentuko lehendakari ordea. Batekoa izan zen *feeling*-a, Gazteriaren Frontean elkar ezagutu zutenetik partekatu dute obsesio bera: gizartean zein hauteskundeetan marjinatua edo subalternoa zen mugimendu neofaxista hegemoniko bilakatzea. Hori lortzeko Rampelliren laguntza ezinbestekoa izan da. Gazteriaren Fronteak 2004 urtean Viterbon egin zuen kongresuan, Rampelliren babesarekin, Giorgia Meloni gazte mugimenduaren lider izendatu zuten.

Viterbotik gaurdaino alderdiaren gora-beheretan garaile ateratzeko gaitasuna izan dute biek. Azken pausoa falta zen, gazte erakundearekin egin

bezala, noizbait alderdiaren erabateko kontrola eskuratzea. Ez geldirik, boterea eskuratu eta berau potentzia elektoral bihurtzeko asmorekin sortu zuten 1998. urtean Atreju topaketa, Italiako eskuin erradikalaren eztabaida eta formakuntzarako espazioa. Europa mailan erreferentzialtasuna eskuratu duen topaketa da, bertan parte hartu dutenen artean dira Victor Orban hungariarra edo Santiago Abascal euskal herritarra. Gisa honetako espazioetan Marechal Le Pen edo Steve Banon bezalakoen laguntzarekin findu du Melonik bere estrategia politikoa, modu berean mugimenduaren barnean posizioa indartzeko balio izan diona.

2014 urteko martxoaren 8an bihurtu zen Italiako Anaiak alderdiko buruzagi Meloni. 2004tik 2014ra bitarteko bere ibilbideaz hausnartu eta boterera iristeko gakoak aztertzen ditu pasa den

Alderdiaren kontrola
eskuratu zuenetik
bera u gizartearen
begietara moldatzeko
ariketa izan da orain
arteko guztia

urtean Daniel Vicente eta Jaime Bordel politologoek argitaraturiko *Salvini & Meloni. Hijos de la misma Rabia* liburuak. Alderdiaren kontrola eskuratu zuenetik berau gizartearen begietara moldatzeko ariketa izan da orain arteko guztia. Jada kanpainan zerua asaltatzeko momentua iritsi zaionean errepresioari ordena deitzeko mila modu eraiki ditu, gutxiengoen aurkako neurriak balore italiarren defentsaz makilatzeke gai izan da eta politika erabat debalututa dagoen herrialdean urteetan kasta politikoaren parte izan bada ere, Porta Porteseko ibileretan ezkutatzeko lortu du.


Eta tamalez italiar askok amua iren-tsi duela dirudi. Chigi jauregian lehen aldiz emakume bat ezarri liteke. Lau hormen goxoan moztorra kentzen duenean berandu izango da. Alperrik izango dira orduan hemeroteke guztiak. ●



Fratelli D'Italiako Giorgia Meloni, Forza Italiako Silvio Berlusconi, eta Legako Matteo Salvini 2018an Erroman egindako agerraldi batean.

REUTERS

Duela 30.000 urteko zirujauak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Borneo, duela 31.000 urte. 10-13 urte arteko mutiko batek istripu bat edo gaixotasun bat izan zuen eta kalte larriak eragin zizkion ezkerreko hankan. Mutikoaren bizia salbatzeko, oina anputatu zioten, hanka berna-bizkarretik ebakita. Anestesiarik eta antibiotikorik gabe egin zioten ebakuntza, baina onik atera zen.

Ezagutzen den ebakuntza kirurgiko zaharrena da, *Nature* aldizkarian argitaratu berri den ikerlan baten arabera. Eskeletoa 2020an aurkitu zuen Liang Tebo kobazuloan Australiako eta Indonesiako arkeologo talde batek. Indibiduo hari hanka anputatu ziotela ondorioztatzeaz gain, nahiko ondo orbaindu zitzaiola ere ikusi zuten. Mutikoak bizirik iraun zuen beste hainbat urtez, eta 19-20 urte zituela hil zen, anputazioarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Ikerlariak garbi dute anputazioa ez zuela trauma edo istripu batek eragin. Esaterako, animalien erasoek eragindako anputazioek haustura birrindu eta zanpatuak utzi ohi dituzte, eta Borneoko eskeletoak ebaki zehar garbia du, zirujau batek tresna zorrotzekin eragiten duenaren antzekoa.

Ebakuntza egin zuenak anatomia-ko ezagutza xeheak izan behar zituen eta paziente hilko zuen hemorragia saihesteko gai izan behar zuen. Baina



TIM MALONEY / NATURE

ikerlariarentzat esanguratsuagoa da ebakuntzaren ondorioei aurre egin izana. Halako zauri batean infekzio arriskua oso handia da. Kirurgiarako ahalmenaz gain, inguruko landareen propietateak ondo ezagutu behar zituzten.

Orain arte, anputazio baten arrastorik zaharrena duela 7.000 urte Frantzia nekazari bati egindako da; ezkerreko besaurrea falta zitzaion eskeletoari. Horregatik adituek uste zuten halako ebakuntzak egiteko ezagutza mediko konplexuak Neolitoan iritsi zi-

rela, nekazaritzaren garapenarekin bat. Baina Borneoko mutikoak erakusten du komunitate biltzaile-ehiztari askoz zaharragoak ere horretarako gai zirela. Froga gehiagorik ezean, adituek ez dakite Borneoko komunitate horrek ezohiko jakintza aurreratua ote zuen ala medikuntza kultura konplexu hori uhartetik kanpo ere zabaldua zegoen. Baina Tim Maloney ikerlari taldearen buruak dioenez, aurkikuntzak "medikuntzaren historia ulertzeko modua astindu dezake". ●

Esnezaleak ezkututzen duena

Amsterdameko Rijksmuseum Johannes Vermeer (1632-1675) margolariari buruzko erakusketa prestatzen ari da 2023ko otsailerako. Museoko adituek margolariaren lan ezagunenetakoa, "Esnezalea", eskaneatze aurreratuaren bidez aztertu dutenean, hainbat elementu aurkitu dituzte pintura geruza sakonenetan; azken emaitzan ikusten dugun horma txurian, Verme-

rek zumezko saski bat eta pitxerrentzako esekitokia margotu zituen hasieran. Adituen ustez, margolariak bete-betean asmatu zuen zuzenketa hura eginez, protagonista askoz gehiago nabarmentzen baita elementu horiek kenduta. Gu-txi dakigu Vermeeren lan metodoez eta aurkikuntza honek artistak erabiltzen zituen teknika piktorekoez gehiago jakiten lagunduko du. ●



RIJKSMEUSEM

LIBURUEZ SOLASEAN (II)



Ziburuko euskal liburu eta disko azokan ere izan da Garbiñe Larrea, besteren artean.

Sendabelarrek dakitena

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sendabelarrek dakitena liburua argitaratu zuenetik gelditu gabe dabil han eta hemen Garbiñe Larrea, liburuaren egilea, etxe ondoan topa ditzakegun landare hauen inguruko jakintza partekatzen. Larraulen eman zion hasiera hitzaldi sasoiari eta udazken honetarako ere makina bat ditu hitzartuta.

“Harrera oso ona izaten ari gara eta oso gustura nago, interes handia sumatzen baitut jendearen partetik”, azaldu digu Larreak lehen balorazioan. Hitzaldi hauen asmoa ez da liburua aurkeztea bakarrik, lekuaren eta dataren arabera, saioa moldatu egiten da. “Hau ez da literatura, liburu praktikoa bat izatea da helburua”, esan digu. “Praktikotasuna” bilatzen du aurkezpenetan ere eta horretarako egokiena inguruan eta momentuan ditugun landareei erreparatu eta horiekin lanean hastea da, liburuan

sendabelar horiez ematen diren gakoak baliatuz.

Antolatzaileen kasuan bezala bertarutako jendearenean ere, oso espektro zabala hartzen du. Udalak dira edo erakundeak dira sarri antolatzaileak. Badira, ordea, herri gintzan aritzen diren elkarteak ere, ez bereziki sendabelarren gaian espezializatuak baina bai interesatuak. Eta ikastetxeetatik ere jaso ditu bertaratzeko gonbidapenak, ikasleekin baino, irakasleekin egiteko saioen batzuk. Gerturatzen den jendearen profilak badu emakume heldua izan behar duenaren aurreiritzia. Baina Larreak dio hori baino askoz ere anitzagoa dela: “Eskaini ditut gehiengoa gizonezkoa bertarutako saioak, badago 30 urte inguru dituen eta mundu urbanotik nekazaritzara gerturatzen ari denaren figura ere... Eta aurkezpen hauetan sortzen den belaunaldien arteko nahasketa oso aberatsa da”.

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Bertsio ofizial eta aldebitarraren alternatiba ona iruditzen zaidalako informatu ahal izateko”

Durangoko Eder

“Kalitatezko kazetaritza, euskalduna eta independentea izatea altxor bat delako, zaindu beharreko altxor bat. Gora zuek!”

Zornotzako Jon

“Informazioak kalitatezkoa, independentea, euskalduna eta herrikoa izan behar duelako. ARGIA niretzat erreferente bat delako; konfiantza daukadalako berarekin”

Markina-Xemeingo Jon

Belaunaldi arteko nahasketa horren barruan oso jarrera desberdinak identifikatzen dituela ere aitortu digu: “Badaude batzuk jakintza hauek jasotzeagatik eskerak ematen dizkigutenak, beraiek agian etxean entzunak baina bere garaian bildu ez eta galdu dituztelako; badira etxetik dokumentu zaharrak, eskuz idatzitako apunteak ekarri eta zuk zer baitetarako aprobeztatuko duzu akaso, esan eta horrelako altxorrak entregatzen dizkizutenak; eta badira beste batzuk kanpotik iritsitako zenbait sendabelarrekiko lilura dutenak eta lilura hori pixka bat desmuntatzen ere ahalegintzen naiz saioetan”.

Datozen saioen berri izan dezakezu Argia.eus atarian edo sare sozialetan, eta aurkezpen bat antolatu nahi baduzu zure herrian edo auzoan, idatzi solasaldiak@argia.eus helbidera eta segituan jarriko dira zuekin harremanetan. ●

KLIMA ALDAKETAREN ARKAKUSOAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Azen arkakusoa: Phyllotreta nemorum.

UDO SCHMIDT

Bero sapolarekin lurreko arkakusoa harrotu egiten dira; aurtengo uda honekin ezin alaiago dabilta, ugaltu eta ugaltu, salto eta salto batetik bestera. Txiki-txikiak izanagatik, 5 mm baino txikiagoak dira; bista ona baduzu, laster antzemango dituzu baratzean. Berak ikusten ez badituzu ere, nabarmena da nondik pasatu diren: landareen hostoak zulo txiki borobilez josita ageriko dira.

Lurreko arkakusoei “kakalardo arkakusoa” ere esaten zaie. Lurreko arkakusoa dira, bere ustez nahiko berorik ez denean edo euria egiten duenean lurrean ezkutatzaren direlako. Kakalardo arkakusoa, Alticini tribukoak direlako; hau da, beste kakalardoaren antza dute elitro gogorretan eta azpiko hegoetan, baina arkakusoei dituzten atzeko hanken parekoak dituzte. Beraz, hegan egin dezakete, eta baita jauzi izugarriak ere. Espeziearen arabera, 1,5 eta 5 mm artekoak dira. Askotariko tamaina eta kolorekoak daude, baina denek dituzte jauzi egiteko atzeko hankak oso garatuak, antena luzeak gus-tuko jakiak topatzeko eta hegan egite-

ko elitro eta hegoak. Arkakuso espezie bakoitzak bere landare ostalaria du, eta huraxe da bere jaki gozoa. Badaude patatarena (*Solanum tuberosum*), betarrabarena edo erremolatxarena (bazka-erremolatxarena *Beta vulgaris* subsp. *vulgaris* var. *conditiva* eta erremolatxa gorriarena *Beta vulgaris* subsp. *vulgaris* var. *crassa*), koltzarena (*Brassica napus* var. *oleifera*) eta abar, baina geurean ezagunena aza jendearen (*Brassica oleracea* barietateak) arkakusoa da; “gurutzadunen arkakusoa” ere esaten zaio, azatarren familiarena, alegia. Izena haxe du: *Phyllotreta nemorum*. Bizkar ilunaren gainean marra hori deigarriak ditu, eta 3-4 mm luze da.

Orain negu osorako landatzen direnean eraso egiten dio, hotza etorri artean, azaren familiari, bai burua egiten dutenei eta bai lorea egiten dutenei (azalorea, brokolia, erromaneskua...). Hostoetan kosk egin eta zulotxo borobilak egiten ditu. Erasoaren ondorioz, hostoak ihartu egin daitezke, eta landarea ahuldu egingo da, ez da behar bezala haziko eta kaskarragoa izango da; uzta urrituko da eta landareak itxura txarra izango du.

Nola aurre egin arkakusoei? Bioaniztasuna sustatu: jarri hesiak (hegaztientzat eta trikuentzat), urmaelak (batrakioak erakartzeko), harri pilak (narrastiak) eta abar. Lurra eta ingurua heze eduki; gogoratu, berozale amorratuak dira. Azatarren inguruan, landatu uraza (*Lactuca sativa*), isats arrunta (*Citrus scoparius*), tagetesa (*Tagetes patula*), kosmosa (*Cosmos* spp.) eta erromeroa (*Rosmarinus officinalis*). Busti asentsio-belarraren urarekin (*Artemisia absinthium*). 2 mm baino begi txikiagoa duen sarea ere jar daiteke.

Dagoeneko baratzean badabil, uxatzeko aza hostoen minda edo purina pres-tatu: plastikozko ontzi batean jarri 10 litro uretan 3 kilo aza hosto; estali aire asko hartzeko moduan; nahasi egunero indarrez, aparrik sortzen ez den arte; iragazi, erantsi litroko 5 litro ur eta busti landareak, baita azpiko lurra ere, hiru egunero.

Arkakuso honetara ohitzen ahal gara; gero eta bero gehiago, orduan eta lurreko arkakuso gehiago. Klima aldaketaren izurriteak. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Udazkena badator

Zatoz sasoi eder honetarako landare eta osagarrien bila, nobedade ugari ditugu.

Online denda ➔



COLLECTE ET COMPOST

JATETXEETAKO HONDAKIN ORGANIKOEI
BIGARREN BIZITZA EMATEKO LANEAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Ziburun eta Donibane Lohitzu-
nen dago Collecte et Compost,
Pierre Koch eta Matthieu Haslé-
ren proiektua. Izenak adierazten
duen bezalaxe, hondakin organikoak
bildu eta horiekin konposta egiten
dute bi lapurtarrek. Bi hirietako ja-
tetxe eta enpresetatik bizikletaz pa-
satzen dira hondakinak jasotzera,
eta horretarako egokitutako gunean
konposta egiten dute. Haien lan egi-
teko moduaz eta sortu duten sareaz
gehiago jakin nahi izan dugu. Koch-ek
erantzun ditu gure galderak.



**Noiz sortu zenuten Collecte et
Compost, eta nondik sortu zen ideia?**
2020ko urrian sortu genuen elkarte
Matthieuk eta biok, eta bost hilabete ge-
roago jarri genuen martxan proiektua,
2021eko martxoan. Ekonomia zirkula-
rrari lotutako tokiko jarduera bat bi-
latzen genuen, karbono isuri gutxikoa.
Frantziako hiri batzuetan –Nantesen,
Valencen, Parisen eta Lionen, esatera-
ko– martxan zeuden ordurako antzeko
proiektuak, eta horietan inspiratu ginen,
baina proiektua Donibane Lohitzuneren
eta Zibururen neurrira egokitu genuen.

Zeintzuk dira zuen oinarriak eta

funtzionamendua?

Materia organikoa lurrera itzultzea, lu-
rrak ematen diguna berari bueltatzea
da gure filosofiaren oinarria, hondakin
organikoak lurrarentzako baliabide
oso aberatsa baitira. Bizikleta elektri-
ko bati lotutako erremolkea darabilgu
establezimenduetako hondakinak ja-
sotzeko: 150kg jaso ditzakegu txanda
bakoitzean. Momentu honetan, 19 esta-
blezimendurekin ari gara lanean eta bi
tona hondakin inguru ari gara jasotzen
hilero. Establezimenduetarako bisita
bakoitzean, bio-hondakinen kantitatea
pisatu, kargatu, eta hirigunetik bost ki-
lometrora daukagun lur eremura era-

maten dugu, bertan konpostatze
prozesua egiteko.

**Eta nola da konpostatze prozesu
hori?**

Donibaneko udalarekin eta golf
zelaiarekin partekatzen dugu 500
metro koadroko lursaila, eta esta-
blezimenduetako bio-hondakinak
golfeko zuhaitzen mantentze-lane-
tako egur birrinduekin nahasten
ditugu, konpost pila handiak egi-
nez. Bederatzi hilabete behar dira
konpost heldua lortzeko. Lehen fa-
sean, tenperaturak 70º-tara iristen
dira bakterio eta onddoen lanari esker,
eta bio-hondakinak izan ditzakeen pes-
tizida eta germenak ezabatzen ditu. Ho-
rregatik, gero zakuetan saltzen dugun
konposta nekazaritza biologikoan ere
erabil daiteke.

**Antzeko proiektu gehiago ere badira
martxan Ipar Euskal Herrian, ezta?
Harremanik baduzue haiekin?**

Bai, badira hainbat proiektu, eta denen
artean kolektibo bat sortu berri dugu:
Collectif Biodéchets Pays-Basque. Elkar-
lana indartzea eta gure lurraldean bio-
hondakinen kudeaketa hobea lortzea
dira taldearen helburuak. ●



Idiazabal Gazta





LIBURUA

Imajinazio askatzaileak



DMITRY ROZHKOV

SONIEXKA

LUDMILA ULITSKAIA
(ITZ.: JOSU ZABALETA)

PASAZAITE, 2022

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Judith Butlerrek apirilean eginiko elkarrizketa batean beti bezain iradokitzaile argudiatu zuen, “badaude eskuineko fantasiak faxistei boterera iristea ahalbidetzen dietenak eta horrexegatik behar du ezkerrek imajinazio oso indartsu bat. Haiek ordena berrezartzeari buruzko fantasia indartsua dutelako behar dugu guk imajinazio oso indartsua”. *Soniexka* leitzen nabilela egin nuen topo Butlerrekin, eta serendipia hutsagatik bada ere, baldintzatu egin zidan Ludmila Ulitskaiaren liburuaren irakurketa.

Pasazaitek argitaratu du *Soniexka*. Eta izango da argialetxearen azken aurreko liburua, betiko itxi aurretik. Ekainean jaso genuen berri tristea eta argitara-

tzear dago azken-azkena. Itxieraren sensazioa da tamalez déjà vuarena.


Halako proiektuek balioa bezain handia dute prekaritatea, eta beste behin ari gara esaten agur. Zer egin, beharrezko babes-sarea emateko biharko Pasazaiteri, Edo!ri eta Utriusqueri. Izan ere, jai daukate instituzio neoliberalizatu eta kultura-turisitifikatzaileen apurrekin. Baina tira, barkatuko didazue digresioa.

Soniexkak Pasazaiteren sinadura darama. Nazioartean sobera aitortutako kalitate literariodun lana eta gurean agian ezagunegia ez den idazlearen inportazioa da. Ulitskaiarena, gainera, gero eta sarriago euskaratua ikusten dugun errusiar literaturari atxikitzen zaio.

Gogora ekarri dizkit argialetxe bere-

ko Drakulic eta –jatorrizkoa alemanez bada ere– Kaminer; eta Katakrakek argitaratu Txukovskaia. Horiek etorri zaizkit gogora denen atzealdean agertzen delako Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna eta denek elkarrizketatzen dutelako kritikoki lurraldetze harekin.

Horrexek narama Butlerrengana. Aspalditik, Mendebalde kapitalistaren fantasia erreakzionarioenak ainguratzeko txotxongilo bilakatu da SESB. Bestalde, SESB erabili da, baita ere, ezkerreko fantasia kontserbadore nostalgikoak elikatzeke. Agian, fantasiak baino, imajinazio askatzailea da indartu behar duguna. Horretan laguntzen du Ulitskaiaren lanak besteekin batera irakurritz gero, hau da, ezkerreko imajinazio indartsua izaten. ●



MUSIKA

Aske eraikitzeko suntsitu



ZERO PUNK ROCK ZERO

AUTOEKOIZPENA, 2022

IKER BARANDIARAN

Ez dago beste biderik, gustuko ez duzuna aldatu eta beste zerbait sortzeko apurtu egin behar da: apurtu eta zerotik hasi. Hori izan zen punkaren oinarria; eta horixe bera da Leire *Led Infernok* (ahotsa) eta Txerra Bolinagak (bateria) erabaki zutena Piztupunk taldea zena nahita desegin eta zerotik, ezerezetik konposatu, ondo pasatu eta gaizkia egiteko erabaki irmoa hartu zutenean. Handik gutxira *Osoron* (gitarra) eta *Otxe* (baxua) batu zitzaizkien, haiek ere berriro ilusionatzeko eta titietatik irteten zitzaiena egiteko gogo handiz. Eta funtzionatu du: oso modu errazean, naturalean, egin zuten bat, eta berehala elkarrekin kanta idazten hasi ziren, baita idatzita-koa plazaratzeko kontzertuak egiten ere.

Bazekiten punka eta rock garratza egingo zutela, DNAn daramate-eta; horra hor haien aurrekariak –Piztupunk, RIP, The Kagas, The Meas, Gatillazo, Vicimas Club, Begitruk...–, baina horiei ez dizkiete mugak jarri nahi izan eta aske ibili dira aurreiritzi gabe konposatzen. Hain zuzen ere, pandemia zital eta luzean dozena bat kontzertu egin zituzten eta are gehiago, denbora hartu zuten Gasteizko Gakobeltz estudioan Joseba B. Lenoir-ekin zazpi kanta berri grabatu eta Oscar Streamline Records-ekin nahasteko.

Barru-barrutik ateratzen diren kantak dira, amorrazioz beteak, oinarri eta instrumentazio eskarmentudunekin eta erraztasunez erregistro asko zein mu-

turrekoak hartzeko gai den ahotsarekin: taldearen asmoa erabat argi uzten duen *Como el hierro* melodiko eta aldi berean kaletarra; *Dentro de mi* rock-and-rolle-roa –bi kanta horietan Miren Narbaiza *Mice*-k oparitu dizkie koroak–; *La reina del lunapar* hit rockero hutsa; *Todo por un like* Lemmyk –beti Lemmy, hori ez da aldatu!– gutako askok bizi dugun inozakeriaz egingo lukeen irakurketa; *Tortura auzolana* da jaungoikoa eta lege zaharreko hardcore-punka; *Bahian behin* iluna eta melodikoa, oso berezia; eta *Soy* pub-rock eta punk aldarrikapena.

Aurkezpen disko honek, estreina-koak, errepidean harrapatu du taldea. Freno jarri gabe doaz aurrera, gogoz eta indarrez. ●



Antso Azkarra, iratzar hadi!

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 MIKEL ERRAMUZPE

Han agertu da Antxo Azkarra bere soldadu *mullet*-dun eta bibote-dun hipsterrekin. Aita Santuaren gurutzadan dira, mairuen kontra —horiek ere nahiko modernoak, Nike zu-riak oinetan—. Gizonak hil, eta andreak Quechua kanpin-denda tuneatuan bor-txarako sartzen dituzte. Gerraren go-rabeherak ari dira komentatzen, baina arreta gehiago jarri diet aktoreak, Santa-na plazako eguzkipean, nahi gabe, lehen lerroetara botatzen ari diren izerdi tan-tei, ea ez ote gaituzten zipriztinduko.

Ez dira gehiegi nekatu borrokaldie-tan, zerbezak, ordea, batzuk hartu di-tuzte, kasko urdin bakezaleei, euren euskalkiari eta beste kontu batzuei umoretik erreferentziak eginez. Halako batean, gerra irabazi dute. Califato $\frac{3}{4}$

taldearena izan daitekeen musika en-tzun da orduan, eta Aixa sartu da, prin-tzesa mairua. Danba, fletxazoa. Antxo maitemindu zaigu bere poesiak ulertzen ez baditu ere, eta Afrikara doa.

Sanferminak egin dituzte gero, erre-gearen itzulera ospatzeko, baina popu-lua eta Javier haserre daude, Gasteiz gaztelarrek hartu dutelako, eta emazte mairua dakarrelako besapean. Merkata-riak, aldiz, turismo-eredu neoliberalen oinarritutako plana dute eskuartean, Donejakue bidea aitzakia. Aurrerago ikusiko dugu herri-kirolak direla bide onena.

Iluntzen hasi du eta Antxo langilez jantzita ageri zaigu. Nafarroako arma-rria taladroarekin egiten ari da. Aixa hil egin delako mezua heldu da Erriberriko

ANTSO AZKARRA MAKEAKO JOSTAKIN ELKARTEA

NOIZ: Irailaren 11n

NON: Santana plaza (Iruñea)

HURRENGOAK: Irailaren 30ean Baionan, urriaren 8an Aiziritzen eta urriaren 15ean Hazparnen



jauregira, baita beste batzuk ere (hips-terrak). Baina, azkenerako, Antxo ere eldarnio artean daukagu, bere izenean hildakoak diren mamuekin hizketan: bufoia, mairuak, Gasteizko herritarrak...

Sartzean eskuorria banatu digute testuinguru gisara, baina abaniko gisa-ra erabili dugu gehienok. Iruinkokoa-ren usaina edo soinua hartu diogu ete-naldi laburretan aritu den Izurriaren fanfarreari. Navas de Tolosatik, Olitera eta Tuterara joan garen honetan, his-toriografoa, apaizak, hartza eta beste agertzen direla ere azalduko nuke, bai-na ez zaizkit kabitzen hiru ordu luze karaktere hauetan. Amaieran Antxori eskaini dioten performanceak nahi-kotxo harritu gaitu, eta hori ez dizuet zapuztu nahi. ●



Puzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA BELEN AUSEJOK, URBIZI TALDEKO KIDEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

3	6	4	5			2	9	
2		7		8	3		5	
8			6					
4	1			5				
		9		4	7	3		
7		3	9				8	
6	4		7		5	1	2	9
9		5	1	2	4		6	7
	7			6	9	5		4

ERRAZA


1		5	3			4	9	6
		7		4		8		
	3					2		
						9	3	
	6			5				4
		1				6		
8	5		2	3			1	
	2		6					9
		9	8					

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Ibilgailu blindatu eta armatu.
2. Beharbada. 3. Haur txikia.
4. Koaderno. 5. Elaia.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				Z	K	A	T	U
2	B				E	N	D	U
3	J	A				K	A	R
4	P	R	E				T	U
5	B	I	K	T				K
6	I	P	U	R	M			

EBAZPENAK

1	7	2	8	6	9	5	3	4
9	3	5	1	2	4	8	6	7
6	4	8	7	3	5	1	2	9
7	2	3	9	1	6	5	4	8
5	8	6	9	2	4	7	3	1
4	1	6	3	5	8	7	2	9
8	5	1	6	9	2	4	7	3
3	6	5	1	4	8	3	6	5
2	9	7	4	8	3	6	5	1
1	8	5	7	1	4	8	3	6

ERRAZA

6	1	9	8	7	5	3	4	2
7	2	3	6	1	4	5	8	9
8	5	4	1	9	8	7	5	3
3	4	1	9	8	7	5	3	4
9	6	8	7	5	3	1	2	4
5	7	2	4	6	1	9	3	8
4	3	6	5	9	6	8	7	1
2	9	7	1	4	6	8	5	3
1	8	5	3	2	7	4	9	6

ZAILA

PUZLEA: "ERREKAK GARBITZEA EZ DA MESEDEGARRIA UHOLDEAK GERTATZEN DIRENEAN. URAK LANDAREEN ETA ZUHAIKKEN OZTORIK EZ BADU, IZUGARRIZKO ABIADA HARTZEN DU." **5XS:** 1. TANKE, 2. AGIAN, 3. NINIA, 4. KAIER, 5. ENARA. **HIZKI BERAK:** 1. MIAZKATU, 2. BAIMENDU, 3. JAMAIKAR, 4. PREMIAU, 5. BIKTIMAK, 6. IPURMAMI.

Marije Luengo

JOKABIDE EKOLOGIKOA
AZTERTZEN



EMAKUMEAK KONTZIENTZIATUAGO

“Gaiari buruzko azterlan sakonagoa daukagu egiteke (irailetik aurrera lan-tzen hasteko asmoa dugu), baina da-tuak biltzen eman genituen hamabi urteetan ikusi genuen, jokabide eko-logikoari dagokionez, desberdintasun esanguratsuak daudela generoaren arabera. Ondorioa da emakumezkoak kontzientziatuago daudela. Izan ere, gizonek baino garrantzi txikiagoa ematen diete bai prezioari bai produktuari. Gizonek askoz gehiago begirutzen dio-te prezioari, eta produktua hurbilago eskuratu ahal izateari. Motibazioa an-tzekoa da batzuegan eta besteengan, baina marketinaren pertzepzioa oso bestelakoa da”.

“Ezagutza garrantzi txikiko faktorea da kontsumo ekologikoan”

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktorea da Marije Luengo Valderrey (Bilbo, 1958) EHUko irakasle eta ikertzailea. Hark koordinatu du unibertsitateak udan ezagutarazitako azterlan bat, jokabide ekologikoari buruzkoa. Enpresa Zuzendaritzari buruzko master baten ikasleei hamabi urtez (2008tik 2020ra) galdetu ostean, krisialdian eta oparoaldian jokabide hori zertan bereizten den aztertu dute, hain zuzen ere.

 UNAI BREA  HODEI TORRES

Jokabide ekologikoa. Zer da hori?
Bi hanka ditu. Batetik, hasierako eta-patzat har dezakeguna, aktibismo ekologiko esaten dioguna, kontzien-tzia hartzea: “Den-dena zabor-poltsa berean sartu eta edukiontzi marroi-ra eraman beharrean, hondakinak bereiziko ditut; garraibide publiko gehiago eta bizikleta gehiago erabi-liko ditut, gehiago ibiliko naiz oinez; gehiago berrerabiliko dut; apur bat kontzienteagoa izango naiz”. Hau da, printzipioz behintzat kosturik ez duen jokabide ekologikoa. Ez zara ezer erosten ari, jarrera edo jokamol-dea aldatzen ari zara, besterik gabe.

Eta bigarren hanka?

Kontsumo ekologikoa. Erosketak egitera joaten naizenean, produktua ekologikoa izateaz gain, jatorriari ere begiratzten diot, ea hurbilekoa den. Izan ere, Australiatik datorren angurri bat erosten badut, produk-tua modu ekologikoan ekoitzia izan arren, nire jokabidea ez da oso eko-logikoa. Hau da, denak izan behar du jasangarria, “ekologikoa” edo “bio” etiketak izateaz harago. Produk-tuak inguratzeke plastikozko estalki

gehiagi erabiltzeari ere begira da-kioke, esaterako.

Orduan, kontsumo ekologikoaz ari zarenean, elikagaiei buruz ari zara soilik?

Printzipioz, edozeri buruz. Jantzi ekologikoak, autoak (elektrikoak, hidbridoak)... Ingurumena kontuan hartzen duen oro. Baina gehien ikus-ten den arloa, edo hurbilen dugu-na, erosketasaski deritzon hori da: badakigu tomatea alboko herrikoa dela, eta ez daukala pestizidarik. Beharbada zailagoa da oinetako ba-tzuk erostean lehengai ekologikoz eginda daudela jakitea.

Zein izan da zuen ikerketaren ondorioz aipagarriena?

Jokabide ekologikoari dagokionez, garrantzi txikieneko faktorea dela jakitea ekologikoa zer den eta zer ez den, edo horrek izan ditzakeen onu-rei buruzko informazioa izatea. Gar-rantzirik handiena motibazioa eta hautematen den efikazia dira. Hau da, norberak sinestea hori ona dela. Jakitea edo ez jakitea baino gehiago, nik pentsatzea niretzat eta besteen-



"Enpresak ez dira behar bezala lantzen ari produktu ekologikoen marketina".

tzat ona den zerbait egiten ari naizela. Hori da funtsezkoena, sarritan pentsatzen dugun arren "jendeak ez du halakorik erosten ez dakielako, ez dagoelako behar adina informazio...". Kontuan izan behar da, gainera, ikerketa egiteko masterreko ikasleei galdetu zitzaiela; hau da, Marketin Ekologikoa izeneko ikasgai bat hartzen ari ziren maila jakin bateko pertsonen. Zer edo zer badakite, eta interesa dute. Baina, hala ere, haien jokabide ekologikoan, aktibismoan zein kontsumoan, eraginik handiena duen faktorea ez da ezagutza, baizik eta sinetsi egiten dutela. Pertsonalagoa da, eta nortasunarekin zerikusia du, usteekin, jasotako hezkuntzarekin... Ez horrenbeste gobernuak edo ez dakit zer elkartek kontaktzen dutenarekin. Eta, argi eta garbi, momentuz garrantzi txikiena duena marketina da. Enpresek ez dute arlo hori behar bezala lantzen.

Krisialdia eta oparoaldia konparatu dituzue.

Bai, eta marketinaren alorrari dagokionez, bistan da krisi garaian kontsumo

ekologikoak behera egiten duela. Aktibismoak ez, ordea.

Kontsumo jaitsiera hori kontsumo orokorrean gertatzen denaren parekoa izaten da?

Ez, handiagoa da. Ez askoz, baina bada. Izan ere, produktu ekologikoak, printzipioz behintzat, garestiagoak dira. Oparoaldi ekonomikoan gaudenean, haien prezioak ez du inolako eraginik erosteko erabakian. Haatik, krisi ekonomikoa dagoenean, prezioa bigarren faktorerik garrantzitsuenak da, kontsumitzeko edo ez kontsumitzeko erabakia hartzeko orduan.

Zein da lehenengoa?

Lehenengoa produktua bera da beti. Babilzko kontsumitzaile ekologikoak uxatzen dituen kontu bat da produktu ekologikoei, ustez (hori da ondo azaltzen ez den gaitetako bat), gutxiago irauten dutela. Arinago iraungitzen direla. Badago kontzientzia duen jendea, baina "ezin dut aste osorako erosketarik egin" ideiatatik, ez dute ekologikorik kontsu-

mitzen. Eta marketinak ez du funtzionatzen, horri dagokionez.

Kontsumitzaile ekologikoen portaera fenomeno konplexua dela esan duzue.

Edozein kontsumitzailearen portaera da konplexua, eta kontsumitzaile ekologikoarena are konplexuagoa izan daiteke. Lehenik, ikuspegia aldatu behar duelako, gutxienean ezagutza izan, eta, hortik abiatuta, motibatu. Denok dugu alde aurretik geureganatuta kontsumitzaile arruntaren jokabidea: beharra duzu, bazoaz eta erosten duzu. Kontsumitzaile ekologikoaren kasuan aldagai ugari eragiten dute: gizarteak eragiten dizu, familiak ere bai... Faktore ekonomikoak daude, iraungipenaren kontu hori, eta, gaur egun ez hainbeste, baina lehen *snoob* bat zinela leporatu ahal zizuten, halakoak erostea ezohikoa zen eta. Beste aldagai bat ahalmen ekonomikoa da. Hemen, Getxon, errazago da produktu ekologikoak aurkitzea, adibidez. Hemengo erosle-nitxo handiagoa baita. Dena den, zabalduz doa, eta orain, saltoki handietan behintzat, produktu ekologiko asko dago prezio onargarrian. ●

Ilararik luze eta, segur aski, ergelena

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ilara batean zain egoteko arrazoiak: demagun, pelikula bat. Aste hone-tan Donostiako Zinemaldian filmak frenetikoki irensten ari direnentzat oinarritzko kritika zinematografikorako elementua da. Aretotik ateratzean galdetu ea merezi al zuen pelikula horrek 15 minutuz Kursaal kanpoan zain egotea. Eran-tzuna ezetz bada, lasai ezabatu koprodukzio franko-alemaniar horrek buruan une batez okupatu dizkizun megak –ez da justua, badakit, baina plataformetan filmak baloratzeko izartxo horiek ere ez dira, eta nazioarteko komunitatea isilik–.

Ilarak supermerkatuan pagatzeko, medikuak krak egin dizun belaun hori begiratzeko, goizeko autobusera igo-tzeko. Ilara lurrik anonimoena, ilaraz eginak desparadisuaeren zutabeak.

Ilara da bizimodu hipermoderno honek produzitzen dituen pertsonaia bakarti eta ezin indibidualistagoek ere bestelako jendeekin topo egiten duten azken lekuetako bat. Ilara izan zitekeen, beraz, komunitarismo berrien abiapunta. Gehiago da, ordea, elkarri susmo-ka begiratzekoa –ni ez al nengoen hori baino lehen?–, elkarrekin haserretze-koa –espabilatuko al da aurreko hori, ez daukat goiz osoa hemen galtzeko–; az-ken finean, inork bere borondatez par-te hartzen ez duen performancea baita ilara. Eta, hala ere, baditu bere arauak, gehienok errespetatzen ditugunak. Ilara izan liteke, akaso, ordena sozialik oina-rrizkoena.

Eta bihurtzen da, batzuetan, garaia-ren termometro: 1994an botoa ematea bezain gauza hutsal baterako 19 milioi pertsonak itxaron zuten errenkada lu-zeetan Hegoafrikan. Eta mundu guztiak ulertu zuen, lerro haietako partaide gehienek ordura arte ez zutelako boto-eskubiderik izan –bueno, ez zuten esku-biderik izan, eta kito–.



Ilara euforikoak: 1963an 11.000 gaz-tek kilometro eta erdiko bat osatu zu-ten Liverpoolen, The Beatles taldearen Eguberrietako kontzerturako sarrerak erosi nahian. Ilararik ilunenak: II. Mundu Gerra amaituta geratu ziren hiri-konda-rretan, bizirik ateratakoei denbora bes-terik ez zitzairen geratzen, eta katilu bat, agian, zopa ziztrin bat banatzen zuten errenkadan erabiltzeko –sabela berotu ahal izateko itxarotea penagarria den edo ez, eskala kontua da: gas-kameran sartzeko ilararekin konparatuta, luxuzko esperientzia behar zuen–.

Uste nuen dagoeneko ikusita neuzka-la ilara kilometriko batean zain egoteko munduko arrazoi ergelenak ere, adi-bidez, lehenbiziko iPhone-ak erosteko Apple denden aurrean sortu zirenak: itxaron 13 orduz, gero ordaindu 500 eusko, gero hartu zure telefonoa, eta bihar arte, aio.

Baina keba, genero honetan ere Inga-laterrako erreginarene hil-kapera ikus-teko ilarak errekor guztiak hautsi ditu.

Hamasei kilometroko bare humano erraldoi bat egunetan Londres okupa-tzen. Sartzen zenak ezin zuen irten. Ezin zion inori eskatu momentu batez lekua gordetzeko. Aulkiak edo lo-zakuak de-bekatuta. Musika festibaletan bezala, eskumuturreko bereziak jantzi dizkiete. 500 komun eramangarri baino gehia-go instalatu dituzte beraientzat –mila-ka maskurientzat estres-test bat izan da 24 orduko itxaronaldietan saldari eustea–. YouTubeko, Twitterreko eta Instagrameko kontuak etengabe ilara-ri buruzko nobedadeak ematen, zeren noski, sartu nahi zutenek jakin behar zuten non hasten zen; eta une oro ari zen aldatzen.

Batzuk ilaran maitemindu dira. Beste batzuk mutur-joka hasi. Hotzagatik eta goseagatik konortea galdu duenik ere izan da. Eta amaieran, egurrezko kaxa bat. Minutu batez begiratu eta kalera. Akabo fandangoa. Bilatu zuek garaiaren metafora, ni hainbeste ilararen ondoren neka-neka eginda geratu naiz. ●

ARGIA EGUTEGIA 2023

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.



+ 5€

bidalketa gastuak.

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

10€

BIZUM bidez ere
ordaindu daiteke.



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45

JORGE
Oteiza

EDUARDO
Chillida



DIALOGOA

50EKO ETA 60KO URTEETAN

2022.04.09
2022.10.02

Erakusketa

San Telmo Museoa

Zuloaga pza. 1 20003 Donostia / San Sebastián

www.santelmomuseoa.eus

Antolatzaileak:

STM
San Telmo Museoa

 **DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

 **donostia
kultura**

Laguntzailea:

 **Fundación
Bancaja**

Erakunde babesleak:

 **EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
ELIZKUNDEA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Foro, Lehenak, Gasteiz
eta Nafarroa



 **ETORKIZUNA
ORAIN**

Patrono pribatuak:

 **eitb**

 **EL DIARIO VASCO**

 **kutxa**
FUNDATZA